

1995ko urtarrilak 27

262. zenb.

PRESS

UGARTE BENGOA MILA (UDALETXEA)  
HERRIKO PLAZA  
ARRASATE  
0 9

ARRASATE



Zerbitzuak,  
herritarren  
zerbitzura


Bilore

EL AR

la k omp

**ALMACENES  
ARRASATE**  
ELEKTRAGAILUAK

# Kataiden bertan abaintaila guztiak



- Markarik onenak
- Almazeneko prezioak.
- 5 urtetako garantia.
- S. A. T. 24 orduz.
- 700 m<sup>2</sup> baino gehiago.



Kataide poligonoa, 3. pabilioia ARRASATE ©: 77 13 52 FAX: 77 13 13

**UDALAITZ, S.A.**



Musakola auzoa, z/g. Tfnoak.: 79 18 80 / 79 21 25

# Handia Beti Handi

**M**akina bat buruhauste eta ardura sortzen duen eginkizuna da irakurle orori interesgarri irudituko zaion edozer esaten asmatzea. Haatik, are ardura eta buruhauste handiagoa sortzen digu egun gure gizartea jasaten ari den egoera larriak.

Toubon frantzia kultura ministroak Hizkuntza Minoritarioen Europako Ituna ez du sinatuko... GALEk berriz eztenkada galanta eman dio egoera politiko eta sozialari... "Guardia Civil"ak bere burua ikertzen du korruptzio arazoak direla eta... Belloch-ek "Terrorismoaren biktimak" politikoki ez erabiltzeko eskatzen du... Paktuko partiduek euskal presoen aurkako eragin handiagorena bila dabilta... Grozni heroikoki jausi da...

... eta beti handienak txikia irentsi nahia, irentsi beharra. Hori, iza-diaren lege gisa eza-gutu izan dugu beti, bizitzaren iraupenerako legea, lege naturala. Baina gaur gertatzen ari diren hauek guztiak lege naturalaren emaitza al dira? Bizitza iraunarazten al dute? Ez, noski.

Normala eta berezkoa hizkuntza guztien berdintasun printzipioa bada, zergatik ukatzen diote gure hizkuntzari gure hizkuntza izateko eskubidea bera ere? Zergatik ukatzen diote txikiari handiak bere iraupenerako nahitaezko dituen oinarriak berak ere? Zeren

beldur ote dira, txikiak handia zanpatuko ote duen beldur? Frantzia eta Espainia frantsesa eta gaztelera, nazioarteko harremanetan ingelesa... Aberastasuna ezberdintasun eta ugaritasunean badago, zer dela eta bakar bat zanpatzaile eta nagusi bihurtzeko grina hori? Ez dut sekula ulertuko!

GALEk bereak eta bi egin zituen bere garaian, eta hemen etorri da berriro ere, samaldan, batzuen lasaitasuna haustera, beste botere gosea asetzera... Hau iskanbila, zalaparta eta ikara!! Batzuk urduri, besteek eraso... Estatuaren oinarri eta hormak haustear daudela dirudi, hango korruptzio, hango lapurreta, besteko salaketa, espetxeraketa, ikerketa... Baina, handia beti handi, boterea beti boterearen bila eta botereak berak babestuta... txikion zoritxarrerako beti.


Eta honen gainean Belloch etorri eta terrorismoaren biktimak "politikoki" ez erabiltzeko dio, komunikabide guztietan, noski. Txiste bat dirudi, esaldiak berak bere bidea zuzen-zuzen egiten baitu.

Eta euskal presoen aurka, zer? Nekez egin baitakieke jada kalte gehiagorik. Zer asmatuko ote dute oraingoan?

Haatik, badago gaur gu baino dextente okerrago dagoenik ere, "heroikoki" erori omen den Grozni hain zuzen ere. Heroikoki ala ez, erraldoiak ipotxa zapaldu eta zanpatu du orain ere. Eta, beti bezala, ez da ezer gertatzen. Nazioarteko komunitateak zer dio? Mutu dirau ala alperrikakoa da, Bosnian bezala?

Kontuak kontu, bada aspaldikoa den baina gehienok ahaztua dugun lege zahar naturala: "ez egin urkoari zure buruarentzat nahi ez duzuna". Ea ba!!

**KARMELE PEREZ**



**GATZAGAN,  
ERDI ERDIAN...**

**ZUHAITZ  
jatetxea**




**Memesa**  
**79 42 22**



Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jauriaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

• **ARRASATE PRESS** •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Telefonoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantza Loidi. **Kazetariak:** Itxaro Zubillaga, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Jaxone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administratzailea:** Ikerne Altube eta Itaso Errasti (Telefonoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanka Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agornia, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Itaki Lasa, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopti, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azalako argazkia: Gaizka Oلابarrieta.

## Autodeterminazioa bai, demagogiarik ez

Jose Maria Astigarragak, "Zer diozu pakeaz"? ARRASATE PRESSEN esandakoak esanaz, Beronikak emandako erantzunagatik manipulatu eta gaizki tratatu sentitzeko ez du motibu haundirik.

Astigarragak erabilitako hitzak larregi gogorrak izan dira. Eta haiei lagundutako argudioak ahulak eta demagogikoak.

Berak dio: "Autodeterminazio hitza, bere edukian zehaztu gabe, herria engainatzeko eta manipulatzeko erabiltzen dutela dogmatikoen eta inposatzaileek". Eta hemen dago gakoa, internazionalki kontsideraturik dagoenez, herrien autodeterminazioa, "munduko herri guztiek, beraiek nahi duten sistema ekonomiko-soziala, antolaketa juridiko-politiko eta eredu linguistiko-kulturala erabiltzeko, inongo interferentziarik gabe, erabiltzeko duten eskubidea delako eta ez beste gauza. Zehazki Espainiako konstituzioak, manu militari, ukatzen diguna; eta une konkretu batean herri batek lortutako kompetentzia politikoekin identifikatzen ez dena.

Astigarragak dioenez, euskaldunek erabaki behar dugu, eta gainera, egun dauzkagun hauteskundeetan erabakitzen dugu. Baina berak ondo daki, gure hauteskunde bitartez gauzatutako egitura juridiko-politiko ez dela existitzen, besteen hauteskundeetan oinarritutako egitura juridiko-politiko, gure kalterako eginga dagoena, erabili behar dugulako. Hauteskundeak ditugu, baina ez gure mundu propioa eraikitzeko eginak direnak, besteek diseinatutako mundu arrotzaren gainean iraun bizitzeko soilik balio direnak baizik.

Gauzak horrela direnez eta herri baten askatasuna luzea izanez, ditugun hauteskundeak, herriaren aldeko aurrerapenak lortzeko erabiltzen dutenei, errespetu osoa sor diet; baina, gure eskubideen oinarriak honelakoak izanez, "hauteskundeen emaitzak eta Legebiltzarretik sortzen diren legeak, errespetatzen ez duen taldea, herriaren aurka doala", horrela esatea, Astigarragak dioen bezala, demagogia egitea da.

Zoritxarrez, horrelako antzerako argudioak, orain denbora gutxi arte, gure herri-eskubideen ukatzaileek erabilitako argudioak, zeintzuen arabera, "euskaldunok, hauteskunde bakoitzean autodeterminatzen ginen" gogora etorri zaizkit.

**ANTXON MENDIZABAL**

## Barkamena eskatuz

Eskutitz hau bidaltzeko konpromezua hartu dugu Gaztetxe inguruko bizilagunei barkamena eskatu nahiez.

Urtarrilaren 14ean, larunbata, Arrasateko Jarraik kontzertua antolatutako Gaztetxean bertan Arrasateko bi musika taldek jo behar zutelarik; ezbehar batzuk medio aurreko egunean jo behar zuten hirugarren talde batek ere larunbatean jo zuen eurek hala eskaturik.

Hau dela eta, hitzartuta dagoen bezala 12ak puntuan amaitu beharrean kontzertua, 2:15 aldera amaitu zen bizilagunen txarrerako. Barkatuko gaituzuelakoan eta berriro gertatuko ez dela ziurtatuz, eskerririk asko.

**ARRASATEKO JARRAI ETA A.G.A.K.O**

## Eskerrak

Arrasateko Amnistiaren aldeko batzordeak, eskerrak adierazi nahi dizkie gabonetako kanpainan parte hartu duten pertsona guztiei, eta baita materiale eta diru laguntza eman duten merkatarierei ere; euren parte hartzeaz egun horietan gure herritik hain urrun izan diren seme-alabei elkartasuna helitzea lortu dutelako.

**AMNISTIAREN ALDEKO BATZORDEA**

## Pilota Taldeak Arrasateko herriari

Uterro bezala, garai honetan, pilotako Euskal Liga eta Ohorezko Liga hasi dira Euskal Herri (Nafarroa eta Iparralde barne) eta Errioxaren partaidetzarekin. Arrasateko Klubak, bi ordezkari ditu Ohorezko ligan: nagusiak eskuz banaka eta nagusiak paletaz.

Bien partiduak etxean direnean, Musakolako frontoira joan behar izaten dugu. Logikoa denez, jende gutxi joaten da eta joaten denak, epaileekin batera, kontraktantxan zutik egon behar izaten du. Egoera hau, reglamentuak ez du onartzen; epaileak eta ikusleak ezin baitira batera egon. Paletako partiduetan, honek duen arriskuagatik, ikusleak ez dira kontraktantxan egoten. Etxean, eskuz bakarrik jokatzen denean, Iturripen jokatzen da eta bertara jende ugari joaten denez, arazoa larriagoa da. Argi dago ikusleak ez duela pilota partidu bat disfrutatze-ko aukerarik, frontoi osoan ez baitu beretzat inolako lekurik.

Aurreko oztopoetaz gain, neguan, kantxa ez da egoera onetan egoten pilotarientzat: kantxan ur putzuak, hezetasuna, hotza, hauts ugari...

Guzti hau ikusirik, ondorioa argia da: Arrasaten, lagunartean aritzeko "frontoiak" badaude, baina txapelketetan lehiatzeko ez dugu frontoi ofizialik. Honegatik eta aurrerantzean, partiduak jokatzerara Aramaixora joatera beharturik gaude.

**ARRASATEKO PILOTA TALDEA**

## Museoaren izenarekin jarraituz

Egun hauetan museoaren izenari buruzko zenbait elkarrizketa izan dut eta batekin eta besteekin iritziak kontrajarri eta hitzegin. Horixe zen lortu nahi nuen efektuetariko bat, zeren gauza hauek horrela erabakitzen baitira, hitzeginda.


Hauen artean aipatu behar dut Jose Mari Velez de Mendizabal adiskideak egindako adierazpena: munduan badi-rela berak ezagutzen dituen "zerrailen" lau museo, behintzat, bata Parisko Champs Elisées inguruan, batez ere "Fontaine" marka frantseseko produktuekin osatua, eta besteak Alemanian, Portugalen eta Italian.

Horrela gutunaren bukaera aldatzera behartuta nago, esan beharko nukeelarik "Imajina ezazue mundu guztian informatika bidez iragarten diren 'Informazioaren autopistetan' zein dotore legokeen, munduko beste museoaren artean, "Zerraila eta Industria Museoa", gai honi buruzko bakarrenetarikoa munduan, Euskal Herriko Mondragoen kokatua".

Eta izenarekin ez badu zerikusik ere, esan didatenez Frantziako museoak salmentak ere egiten ei ditu, horrela bere errentagarritasuna bilatuz. Defizitariora ez den museoa lortuko ote dugu ba?

**IÑAKI AZKOAGA**

# Baduzu eskiatzera joateko asmorik?



**Iñaki Izquierdo**  
**Ikaslea**  
**(17 urte)**

Ez naiz sekula eskiatzera joan eta orain ere, ez dut joateko asmorik. Baina inbidia apur bat ematen dit.



**Santa De la Rosa**  
**Etxekoandrea**  
**(27 urte)**

Ez, ez naiz inoiz joan eta. Beldurra ematen dit, jausi eta zerbait apurtuko dudala iruditzen zait.




**Santiago Algaba**  
**Langilea**  
**(22 urte)**

Inoiz ez naiz joan eta orain ere ez dut horretarako asmorik. Egia esan, eskiak ez nau erakartzen. Kirol hori dirudunentzat da.



**Eider Lete**  
**Ikaslea**  
**(19 urte)**

Inoiz eskiatu dut baina horretarako diru asko behar da. Horregatik, oraingoz ez naiz joango.




**Asier Jimenez**  
**Ikaslea**  
**(18 urte)**

Ez, garestia iruditzen zait eta. Eskiitzeak, gainera, ez dit inbidiarik ematen.



**Arantza Ezkurdia**  
**Ikaslea**  
**(20 urte)**

Bai, noizean behin joaten naiz. Seguruena ihauterietan edo Aste Santuan joango naiz. Eskiitzea asko gustatzen zait.



**Carlos Orueta**  
**Copreciko langilea**  
**(26 urte)**

Aurten oraindik ez dut eskiatzera joateko aukerarik izan, baina otsailean joatea espero dut. Urtean hiru edo lau astebukaeratan joaten naiz.



**Ane Mentxaka**  
**Ikaslea**  
**(10 urte)**

Gabonetan joan nintzen eskiatzera eta Aste Santuan ere joango naiz. Aspalitik eskiatzen dut eta asko gustatzen zait. Familia guztia joaten gara.

Elektroinjekzio  
Zerbitzua



**ARRASATE KONPONKETAK**

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41  
ARRASATE

**BURGALES JATETXEA**

**Jaki goxoak eta giro atsegina**

**Durana, 12**  
**ARETXABAETA**

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritetxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. ....79 53 00  
 Igalatorioa .....79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) .....79 39 00  
 (emakumeak) .....79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua .....79 90 11

**Gurutze gorria**  
 Bergara .....76 55 76

**DYA**  
 Antzuola .....76 62 91

**Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdiak) .....79 13 57  
 (Txanda hartzeko).....77 03 46  
 77 07 21  
 Oñati .....78 08 52  
 Eskoriatza .....79 98 58  
 Aretxabaleta .....79 74 58  
 Aramaio .....(945) 45 51 16

**Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulantiak .....45 87 44

**Udaltzaingoa**  
 Oñati .....78 04 11  
 Bergara .....76 14 69  
 Arrasate .....79 14 39  
 Aretxabaleta .....79 10 52  
 Eskoriatza .....79 03 22

**Ertzaintza**  
 Arrasate .....79 71 99

**Suhiltzaileak**  
 Udal taldea .....79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile burua .....79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea .....78 28 00

**Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) .....79 09 00  
 Elektrizitatea (Iberduero) .....12 01 62  
 Gasa .....900 40 05 23  
 79 78 44  
 79 76 78

**Garraioak**  
 Taxiak .....79 12 22  
 P.E.S.A. ....79 14 19

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
 Iturbide Egoitza .....79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza .....79 81 57

**Kontsumitzailearentzako informazioa**  
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak .....79 87 77  
 KIUB-OMIC .....79 51 55

**Monterongo liburutegia**  
 Monterron .....77 01 05

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 27**  
 Egunez eta gauzez: Ruiz. Maala.

**Larunbata 28**  
 Egunez eta gauzez: Morales. San Andres.

**Igandea 29**  
 Egunez eta gauzez: Azkoaga. Ferrerías.

**Astelehena 30**  
 Egunez eta gauzez: Español. Iturriotz

**Asteartea 31**  
 Egunez eta gauzez: Corcuera. Muskola.

**Asteazkena 1**  
 Egunez eta gauzez: Mozos. Bergara.  
 10.00ak arte: Irizar. Erguin.

**Osteguna 2**  
 Egunez eta gauzez: Camacho. Bergara.  
 10.00ak arte: Amezuza. Sta. Marina.

**27 OSTIRALA**

**ZINEA**  
 "Germinal" 7etan eta 10etan.

**SAN BALEIXO JAIAK**  
 Meatzerreka auzoan. 8etan jaien hasiera. 9etan auzo afaria eta erromeria herriko trikitilariekin.

**BIDEO AURKEZPENA**  
 "Kooperatiben esperientzia" izenburupeko 3 bideoren aurkezpena: Jesus Goienetxe MCCko Gestio Sozialerako zuzendariak egingo du. 5.30etan ikus-entzunezko emanaldia. 6etan hitzaldimahaingurua: "Kooperazioa: sortzen ari den indarra", Hizlaria: Jose M<sup>o</sup> Larrañaga, Otorako Hedakuntza arloko arduraduna. 6.30etan luntxa. Otorara Jauregian.

**BERTSO-AFARIA**  
 Peñagarikano eta Egaña bertsolariekin Bertso-afaria Garagartzako Leze Txiki elkarteak, gaueko 8etan.

**BATZAR NAGUSIA**  
 Aretxabaletako Leizarra musika eskolak Batzar nagusi arrunta egingo du, arratsaldeko 7etan Aretxabaletako udaletxeko Batzar aretoan.

**ANTZERKIA**  
 Maskarada antzerki taldearen "Monstruo Sakratuak" antzezlan. Amaia antzokian gaueko 10.30etan. Sarre-700 pta, gazte-txartela-ekin 500.

**28 LARUNBATA**

**ZINEA**  
 "Una foca en mi casa" 5etan.  
 "Timecop" 7.30etan eta 10etan.

**MANIFESTAZIOA**  
 Gandhiren urteurrena ospatzeko pakearen aldeko manifestazioa. Bilboko Jesusen bihotza plazatik Udaletxeraino, arratsaldeko 5.30etan. Garrasi Isilak antolatuta

**INTSUMISIOAREN ALDEKO KARABANA**  
 Intsumisioaren alde Aramaioko auzoetan zehar auto karabana arratsaldeko 5etan. 7etan manifestazioa.

**SAN BALEIXO JAIAK**  
 Meatzerreka auzoan. 4etan ume eta gazteentzako jolasak. 5etan Mus Txapelketa. 8etan briska txapelketa emakumeentzat. Gaueko 11etan erromeria "Anaiak" taldearekin. Goizaldean txarri-harrapaketa eta berakazopa.

**TXATXILIPURDI-AEDKO LUDOTEKA**  
 Txatxilipurdi-AEDko ludoteka ibiltaria Musakolako auzoan, goizeko 11etatik ordu batera. Musakolako alkatetzan, Maixu Aranbarri plazan. OHOKo 1., 2., 3., 4., 5., 6., 7. eta 8. mailakoei zuzenduta.

**29 IGANDEA**

**ZINEA**  
 "Una foca en mi casa" 5etan.  
 "Timecop" 7.30etan eta 10etan.

**SAN BALEIXO JAIAK**  
 Meatzerreka auzoan. Eguerdiko 12etan Meza, San Baleixo ermitan, Goikobalu abesbatza egongo da bertan. 2etan buruhandiak eta jaien bukaera.

**MENDI IRTEERA**  
 Aretxabaletako Murruxiko elkar- teak antolatuta mendi irteera: Kurtzebarri, Kresterioa, Leizargarate. Irteera goizeko 9etan Partenoitik.

**BATZAR OROKORRA**  
 San Felipe Apostol elkarteak batzar orokorra egingo du eguerdiko 12.15etan San Viator ikastolan. Oharra: San Juan Bataiatzailearen elizan 11etan egingo den meza hildako bazkideen alde izango da.

**MASAIA IKASTAROA**

**Urtarrilaren 28-29an eta otsailaren 4 eta 5ean, masaia hasierako ikastaroa. Lasaitzeko masaia, mendebalde eta ekialdeko konbinatuak eta oineko erreflexologia ikasiko dira. Irakaslea: Jose Luis Armendia. Informazio gehiagotarako dei egin 793576 zenbakira. Arrasateko Yoga elkarteak antolatuta.**

**30 ASTELEHENA**

**ZINEA**

"Timecop" 7etan eta 9.30etan.

**31 ASTEARTEA**

**ZINEA**

"Timecop" 7etan eta 9.30etan.

**1 ASTEAZKENA**

**HITZALDIA**

Gaia: "Bikotearen bizitza". Hizlaria Manolo Izeta, apaiza eta aholkularia. Arratsaldeko 6etan ALMEnen, guraso eskolak antolatuta.

**HITZALDIA**

Gaia: "Aldibaterako lan enpresak". Hizlaria: Izaskun Garitano. Arratsaldeko 6etan Monterronen. ELA-Gazteak antolatuta.

**BILERA**

Besaideko gazteen ekintzak antolatzeko bilera Besaide-ren egoitzan arratsaldeko 7.30etan. 14-18 urte bitarteko neska-mutilentzat izango dira ekintzok.

**2 OSTEGUNA**

**ZINEA**


"Entrevista con un vampiro" 7etan eta 9.30etan.

**HITZALDIA**

Gaia: "Bikotearen bizitza". Hizlaria: Manolo Izeta, apaiza eta aholkularia. Arratsaldeko 6etan ALMEnen, guraso eskolak antolatuta.

**SAN BLAS EGUNA**

Otsailaren 3an San Blas Eguna. Aretxabaletako Apotza-Etxebarri auzoko San Blas ermitan meza goizeko 11etan. Mezetan eramandako janaria bedeinkatuko da. Nola joan Arrasateetik? Oinez: Aretxabaletako Valle Leniz lantegi ondoan ermitaraino eramango zaituen bidea dago. Autoz: Ibarra futbolzelai ondoko Malkorre etxetik gora dagoen bidetik.



**MENDIKO ESKI IKASTAROA**

Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak Mendiko eski ikastaroa antolatu du otsailaren 11-12 eta 18-19 asteburuetarako. Hastapeneko maila. Tokia: Luz Ardiden, Bareges, La Glere. Oharrak: Mendiko Federatua izatea derrigorrezkoa, materiala norberak eraman behar du, NAN-en fotokopia ekarri. Prezioa: Bazkide nagusiek 22.000 pta, gazteek 9.100 pta. Bazkide ez diren nagusiek 26.000 pta, gazteek 9.100 pta, bidaiaria eta pensio erdi barne.

**SANTA AGEDA EGUNA**

Otsailaren 4ean, larunbata, korua aterako da Santa-eskean. Goizeko 8etan meza Parrokian. Ondoren bi talde egingo dira: batzuk Musakolara eta besteak Bedoña aldera. Bazkalostean, Gesalibar eta San Andresen kantatuko dute. Arratsaldeko 7etan Monte tabernaren parean elkartu eta 9ak arte herrian zehar ibiliko dira.



“Gu gizakiok, itxurak eta imajinak txundituta gaudela’. Eta egia da; nola ulertu bestela larru iletsuzko berokiak erostea hainbestearinoko hotzik egiten ez duen Euskal Herri honetan? (...)

Ekologistok animalien alde lan egiten saiatzen gara, bai ta gizaki eta bere bizi kalitatearen alde lan egiten ere. Errekurtso natural eta faunistikoak zaintzea, bizi kalitatea defendatzea da, eta larru iletsuaren industriak daraman luxoak, 140 milioi abere hiltzeaz gain, izugarrizko jaki eta energia pila alferrik gastatzen du”.

**Piter Encinas**ek 95-1-19

**Egunkaria**

“Harritzekoa, espainiar komunikabideek txetxeniarren jarrera ulertzen dute. Irratietako mahain-guruetako kide guztientzat txetxeniarrak ez dira terroristak; gainera, errusiaren amek bere semeen hilotzak telebistan ikusi ondoren Ieltsiren kontra agertu beharko luketela diote.

Nire iritzi apalean sasidemokrata hauek badute non ikasi eta gertuago, baina tira!

Historiak erakutsi dit armekin lortutakoa oso zaila dela berriz eskuratzea armarik gabe (armaren orde z indarra jarri daiteke) oso bakezalea izan arren (salbuespenik badago ere). Beraz, bi aukera daude: erosotasuna duintasunaren izenean baztertu eta herriaren eskubideak eskuratzeko borrokan aske bizi edo erosotasuna guztiaren gainetik jarri, burua makurtu, bakearen aitzakia jarri eta norberaren herrian esklabu bizi tripa ondo bete arren.

Txetxeniarek lehen aukera hartu dute eta egoera oso zaila eta gogorrean aurkitzen dira. Iku bezala otsoa dute haien armarrian, otso bakartia. Eta bakarrik egongo dira garaitu arte. Nik bat egiten dut otsoekin. Ni neu txetxeniarra naiz. Ez etsi. Eman egurra!”

**Enrike Letona Biterik** 95-1-19

**Egunkaria**

## Zergatik da garrantzitsua mendizaleak


Urte berria hasi da eta Besaide Mendizale Elkarteak azken urteotan moduan federatze kanpainari hasiera eman dio. Federatzea zergatik? Besaide Mendizale Elkarteak bi arrazoi nagusi ikusten ditu hori egiteko:

Batetik, federatzean aseguru etxe batekin poliza kontratatzen da eta mendian zeozer gerta ezker, (lesioa, istripua) gastu guztiak beregain hartzen ditu. Horrez gain, erreskate lanek ekartzen dituzten gastuak

ere ordaintzen ditu aseguru-etxeak. Horren inguruan, Euskal Herriko hainbat ospitalekin hitza emanda du Federazioak eta horregatik, zentru horietara joan beharra dago zerbait gertatuz gero. Jakina, zerrenda horren berri emango die Besaidek federatuko diren guztiei eta bide batez, gogoratu kiroldegiko medikuarekin harremanetan jartzeko aukera ere badagoela.

Bestetik, federazioak antolatzen dituen ikastaro guztietara joateko aukera ere ematen du federatzeak. Ikastaro horietan, teknikak eta ezagupide berriak ikasten dira eta irakasleak, Goi Mendiko eskolako partaideak izaten dira, esperientzia handikoak, beraz.

Bukatzeko, federatzeko hiru maila desberdin daudela esan behar: nazionala, internazionala eta mundiala. Mendizale bakoitzak, ibili asmo duen ikusita, bata edo bestea aukeratu beharko du baina Pirineotara joatekotan, internazionala egitea gomendatzen da; baina informazio gehiago nahi izanez gero, Besaideren egoitzara jo dezakezue asteartetan, 7.30etatik 8.30etara. Lerro hauen bidez, gainera, urte oparo eta menditsua opa nahi nituzke, eta ea aipaturiko zerbitzuak ahal den eta gutxien erabiltzen ditugun.



**Mikel Arana**

Besaide Mendizale Elkarteak lehendakaria



- KONTABILITATE OROKORRA
- ZERGA GESTIOA
- GARRAIOLARI LANBIDERAKO GAITASUN IKASTAROA

**KLASE  
PARTIKULARRAK**

- » O.H.O.
- » B.B.B.
- » U.B.I.
- » L.E.E.
- » Unibertsitaterako sarbidea
- » Injinerutza

- » Matematika
- » Fisika
- » Latina
- » Gaztelera
- » Atzerritarrentzat gaztelera
- » Kimika

*Gure erronka,  
zure etorkizuna eratzea.*

Helbide berria: Garibai, 6 B ☎: 77 11 06





### Dolumina Ordoñezen hilketaren inguruan

Gregorio Ordoñez hil zutela eta, Arrasateko hainbat lagunek protesta ekintzak egin zituzten asteartean. Arrasateko Udaletxean masta erdian izan zen ikurrina, Ordoñezen oroimenez. Zinegotzi eta langile batzuk, gainera, eguerdiko 12etarako deituta zegoen lanuzte isila egin zuten.

Institutoan, berriz, bost minutuko etenaldia egin zuten hainbat ikaslek. Euren adierazi bezala, herriko ordezkari baten hilketa krudela salatzeke egin zuten geldialdia. Horrez gain, edozein ideologi politikoren gaineratik bizitzaren eskubide naturala dagoela eta horren aurrean, ikasleak ezin direla isilik geratu adierazi nahi izan zuten. Bukatzeko, ETari hiltzeari uzteko eskatu nahi izan zieten.

Azkenik Garrasi Isila-Gesto por la Paz elkarteak, kontzentrazioa egin zuen Arrasateko plazan arratsaldeko 8etan. 300 lagun baino gehiagok parte hartu zuten isilean egin zen kontzentrazioan. "Bakea zergatik ez?" esaten zuen pankarta baten aurrean batu ziren lagun guzti horiek.

### Danborrada

Donostia eta Azpeitian ezezik, Arrasaten ere entzun ziren danbor hotsak ostiral arratsaldean, San Sebastian egunean. Erguin, San Viator Txiki eta S.F.X. eskoletako neska mutikoez buruan sukaldari txapela jantzi eta gurasoak bertan zirela danborra jo zuten, Sarriegik konposatutako doinuei jarraituz.

### Gaztetxeko kontzertuak

Ostegunetik larunbatera arte hainbat kontzertu izan zen entzungai Gaztetxean. Ostegunean Canker eta Su ta Gar taldeek jo zuten, ostiralean Cujo eta Lord Sicknessek eta azkenik larunbatean, Anestesia eta Storbais taldeek. Kontzertu horiek A.G.A.K.O.k antolatu zituen.



### Hitzaldia

"Pertsona nagusiak eta erakundeak" izenburupean hitzaldia izan zen Monterronen, herriko jubilatutako etxeek antolatuta. Erakundeek zer eskaintzen duten eta pertsona nagusiek zer eskatzen duten aztertu zuten, Elena Kortabarriak, Udaletxeko Gizarte Laguntzaileak eta Maiaio Alkorta, Foru Aldundiko Ongizate saileko teknikariak. Alkortak, bidaiak egiteko ematen diren aukerak eta etxean daudenei ematen zaaien laguntza azpimarratu zituen besteak beste. Kortabarriak, berriz, Udalak ematen dituen laguntzen inguruan berba egin zuen.

#### JAIOTZAK

- Jokin Ruiz Kortabarria. Urtarrilaren 13an.
- Mainer Bolinaga Barandiaran. 14an.

#### HILDAKOAK

- Beatriz Cristobal Rey. Urtarrilaren 13an. 82 urte.
- Hilario Gutierrez Higeru. 15ean. 57 urte.
- Antonio Godoy Romero. 14ean. 53 urte.
- Alberto Lopez Baldeón. 14ean. 73 urte.
- Demetria Abarrategi Kortabarria. 14ean.
- Antonio Rio Garcia. 16an. 85 urte.
- Antonio Molina Ramos. 15ean. 65 urte.
- Manuel Dávila Algara. 14ean. 57 urte.
- Sebastián Eguren Ciarso. 22an. 84 urte.
- Emedenciana Morillo Morillo. 21ean. 86 urte.
- Concesa Cacho Gamazo. 22an. 87 urte.

beinke

"EDERTU"  
ileapaindegia

San Andres auzoa  
Tfnoa: 79 04 28

comercial  
san juan

Garibai, 12  
Tfnoa: 79 13 05

hikein  
MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4  
Tfnoa: 79 13 84



BERONIKA GARAI

*Zer diozu bakeaz?*

## Negoiaziotik bakera

**Denok** bakea nahi dugu, denok daukagu gure burua bakeazaleztat baina ez gara gure artean ados jartzen. Batzuentzat bakea gatazka edo borrokarik ez izatea da eta ez dute bereizketarik egiten zapaltzaileen biolentzia eta zapalduen erantzunezko biolentziaren artean. Beraientzat bakea orain dela 60 urte Euskal Gudariek Intxortan edo Artxandan espainiar faxistei erresistentzia armatua eta biolentzia ez jartzea edo, gaur egun Txetxeniarrak errusiar inperialisten aurrean baldintzarik gabe errenditzea litzateke.

Hori al da bakea? Zeresanik ez gatazka edo borrokarik eza badela, baina zapaltzailearen biolentzia bere gordintasun osoan mantentzen da.

Euskal Herriari dago-kionez, orduan, non dago arazoa? non dago biolentziaren zergatia?

Zertan datza arazoa? Euskaldunok Espainiako eta Frantziako "demokraziaren" menpe gaude eta geure etor-

kizuna guk geuk soilik lantzeko ez dugu aukerarik. Euskal Herriaren Autodeterminazio Eskubidea ez onartzea eta Herri honi zor zaizkion eskubideak aitortuak ez izatea dira aspalditik datorren enfrentamendua sortzaileak.

Hona hemen nire galdera: zein da bide egokia Estatu Espainiarrak eta Frantziarrak gure burujabetasunari armen bidez (Konstituzioaren 1. eta 8. artikulok) ezarri dion debekuari aurre egiteko?

*Bake bideak:* Orain arte Euskal Herriak ez du aukera izan bere nahia azaltzeko, beti bozketa egin duenean,

**“Elkarrizketaren ondorioz Negoiazio prozesu bat ireki behar da”**

txantaje moduan izan da, edo Autonomi Estatuto hau edo ezer ez. Ez du proiektu ezberdinen aurrean aukera izan eta gehiago esango nuke, ez du berak nahi duen proiektua aurkezterik izan, beti konstituzioak markatzen duen bidetik ibili behar izan du eta. Bide “demokratikotan” botoen bitartez, guk ezetz esan diogu Espainiako Konstituzioari, OTANi e.a., baina “minorian” gaudenez, onartu egin behar besteek erabakitakoa. Egoera honetan ezin da esan benetako demokrazian gaudela, eskaldunontzat bederen, eta egunero aukeratu ahal dugula gure bidea edo autodeterminatzen garenik zeren gaur egungo marko politikoan independentziarako bidea demokratikoki ez da posible.

Bake bidean aurrera egin ahal izateko gure Herriaren Autodeterminazioa egia bihurtzeko beharrezko baldintzak ezarriko dituen prozesuaz etzabaidatu behar da. Azpijokoak eta “tenperatura neurtzeak” alde batera utziz, Elkarrizketaren ondorioz Negoiazio prozesu bat ireki behar da, non parte guztiek ideia batekin joan behar duten: Euskal Herria eta Demokrazia garaile izan daitezela.

## USTEAK USTE

### LEKUKOA

Orain hiru urte hartu genuen lekukoa aurrekoak utzi zuen lekutik. Lekutan dago egun hura! Herri honetako leku asko, asko, zapaldu dugu harrezkero, buzoi askotan hartu dugu lekua eta berbalekua ere eman dugu, seguru. Zutabe honetako lekua, lerroak ere libre geratuko dira zati baterako. Arrasateko zezanak beste leku batetik, erromararen bestaldetik ikusiko ditugu eta orain. Beste era batera ikusiko ditugula ere dudarik ez. Eta herri aldizkariaren eta herri komunikabideen ezaugarri bat lekuan-lekukotasuna dela badakigunez, nahiago genuke, Jon Garaik gogora ekartzen zigun bezala, ARKO benetako Arrasate Komunikabideak izatea; baina bidean baldintza asko bete behar da. Horetako bat herritarren partaidetza dela esaten ere ez naiz aspertuko. Mondrauetar denen esku dago, langile zein kolaboratzaile moduan, Pressi eta ATBri bultzada ematea. Herritarrek eta herritartuek balio dute. “Ni ez naiz hemengoa” idatzi zuen Sarrionandiak. Ni ere ez; baina atxabaltarren baimenarekin, ez naiz arrotz sentitu eta uste baino bertakoa-go, lekukoago bai. Eskerrikasko horretan lagundu didatenei.

ARANTZAZU LOIDI



San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

- Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.


**“PAL”**

**burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria**

Uribarri etorbidea 3,  
Tfnoa: 79 31 99

**GORKA**  
ILEAPAINDEGIA

**SOLARIUMA**  
Ferrerias, 35 ARRASATE  
Tfnoa: 77 13 78



Emakumeak eta gazteak dira batez ere langabezia daudenak.

## Zertxobait jeitsi egin da langabetuen kopurua Arrasaten

1993. urteaz konparatuta, iaz zertxobait jeitsi egin zen langabetuen kopurua Arrasaten. 93ko bukaeran 1.327 langabetu zeuden herrian eta 94aren bukaeran, 1.280. Hala ere, horrek ez du esan nahi lanik barik daudenak gehiago ez direnik; talde horretan ez dira zenbatzen eta, lanik ez dutelako ikastaroren bat egiten edo beste zerbaitean daudenak. Murrizketa txikia izan arren Margá Garmendia, Udaleko enplegu teknikariaren berbetan, bada zerbait batez ere herriko biztanleria aktiboaren kopurua gutxigora behera 10.990ekoa dela kontutan izanda.

Ohi bezala, gainera, langabezia dauden gehienak emakumeak dira: 836 emakumeak eta 444 gizonezkoak. Adinari dagokionez, berriz, gehienak hogeita hogeitamar urte bitartekoak dira eta heziketa mailari begiratuz gero, gehienak ikasketa maila txikiak. Udaleko enplegu teknikariaren iritziz emakume asko dago lanean, batez ere etxekolanak egiten baina lan hori lan merkatuan onartua ez dagoenez, emakumeen langabe-

zi kopuruak gora egiten du. Bestalde, lanik sortzen ez denez, gazteen langabezia kopuruak ere gora egin du.

Inguruko herriei dagokionez, Aretxabaletan eta Eskoriatzan ere behera egin du langabezia. Gaur egun 249 langabetu daude Aretxabaletan eta 190 Eskoriatzan.

### UDALAK ZER ESKAINTZEN DU?

Arrasateko Udalak inguruko udalekin harremanetan, zenbait ikastaro antolatzen ditu urtean zehar langabezia daudeneztat eta horrez gain, erakundeetatik sortzen diren lanpostuen eta ikastaroen berri ere ematen du. Garmendiaren esanetan: "beste herri batzutan antolatzen diren ikastaroetan parte hartzeko aukera ere badago, mugitzeko gertu izanez gero. Gasteizko udalak eta SARTU erakundeak, adibidez, nahiko ikastaro antolatzen dituzte". Horrez gain, euren kasa komertzio edo enpresaren bat eratu nahi duten guztiei ere ematen diete informazioa udaletxean.

### Fagor Sistemak

Arrasateko Fagor Sistemak enpresak Baionako SEI, Informatika Ekipamenduen enpresa garrantzitsua erosi du. SEI FAGOR deituko da enpresa berria eta Softwarearen injenerutza eta asistentzia teknikoaren alorrean egingo du lan. Frantziako merkatuan punta-puntako enpresa izan da SEI baina kiebrara joan eta gero Fagorrek erosi du. SEIko akziodun nagusia Fagor Sistemak izango da, kapitalaren %66arekin eta gainerako %34a langileek jarriko dute.

Fagor Sistemak enpresaren informatika alorrean 25 lagun izan dira lanean baina erosketa horrekin, 110 langile izango dira zerbitzu horretan lanean. MCCren zerbitzu atala indartzeko bidea jarriko da erosketa horrekin.

### Garbiketak

Arrasateko Udalak 800.000 pta. gastatuko ditu herriko horma eta harriak garbitzen. Zehazki, 500.000 pta. izango dira hormetako pintadak garbitzeko zuzenduko direnak eta beste 300.000 pta. harrietako pintadak garbitzeko. Iragarki eta adierazpenak jartzeko herrian arautegirik indarrean ez dagoenez, jendeak edonon egiten dituzte pintadak eta ondorioz, noizean behin garbitu egin behar izaten dituzte Udaleko zerbitzu sailak.

**PEUGEOT**  
Salmenta eta  
zerbitzua

**IBABE  
GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**  
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

**ITSASKI**  
ARRANDEGIA

Arrain freskoa  
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 98 94

**BASABE  
JATETXEA**  
Menu eta afariak  
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84  
ARETXABALETA



90 auto istripu izan ziren iaz.

## Auto istripuek eta lapurretek gora egin zuten iaz

94ko iharduerari buruz Arrasateko Ertzaindegiak ateratako datuen arabera, orain dela bi urte baino auto istripu eta lapurreta gehiago izan zen iaz. Arrasateko ertzainen lan eremuan (Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatzan, Gatzagan eta Aramaion) guztira 185 lapurreta izan ziren iaz eta 93an, berriz, 78. Lapurreta gehienetan, gainera, 30.000 pta. baino gehiago ostu ziren eta tartean biolentzia ere izan zen. Auto istripuek ere izan dute igoera nabarmenik, iaz 90 izan ziren eta orain dela bi urte 58. Istripu horie-

tan 541 autok izan zuten zerikusia.

Bestalde, joan den urteko datuei dago-kienez intentzio txarrez egindako 15 dei eta 9 mehatxu jaso ziren ertzaindegian. Alkoholemia eman eta atestatua egin zitzaizkienak, berriz, 45 izan ziren eta 93an, 61.

Baina jeitsiera izan duten atalak egon dira; atxilotutako lagunen kopuruak, adibidez, behera egin du. Iaz 77 lagun atxilotu ziren, eta 93an, 129. Trafiko salaketak ere gutxiago jarri dituzte ertzainek: orain dela bi urte baino 395 gutxiago.

### Isunak

Gesalibar auzoko

Tomasena baserrian bi aldiz obrak lizentzia barik egiteagatik, Udalak hainbat isun jarri du. Baserriaren jabeari, Jose Mari Yarzari, 480.000 pta eta 154.000 ptako isuna, Hermanos Raso eraikuntza enpresari 960.000 ptakoa eta Joseba Etxebarria, teknikoari, 960.000 ptako isuna. Lastategia eta korta konpontzeko baimena eman eta toki horiek etxebizitza bezala egokitu zituztelako jarri diete isunak. Nahiz eta hiru aldeek alegazioak aurkeztu, Udalak ez ditu onartu eta bi hilabeteko epea eman zaie, isuna ordaindu edo Euskal Herriko Epaitegi Nagusian erabaki horren aurkako errekurtsioa jartzeko.

### Haratuzteak

SUDC Batzordeak aurtengo haratuztetarako aurkeztutako egitaraua eta jai horietarako, 2.500.000 ptako aurrekontua onartu ziren gobernu batzordean. Horrez gain, kiosko bat erosteko aukera aztertzen hasi da Udala, baina oraingoz ez da ezer erabaki.

*Baster-alde*

*Jatetxea*

**Denboraldiko platerak, giro onenean**

Galartza auzoa *ARETXABALETA*  
 Tfnoa: (943) 79 24 58

**CIM**  
 HIZKUNTZAK-IDIOMAS

**FIRST CERTIFICATE OF CAMBRIDGE**


- LARUBATETAN KLASEAK
- ORAINDIK DENBORAZ ZABILTZA
- ZATOZ, EMAN IZENA ORAIN

First Certificate - First Certificate - First Certificate - First Certificate - First Certificate  
 Larunbatetan - Larunbatetan - Larunbatetan - Larunbatetan - Larunbatetan - Larunbatetan

9.30etatik 12.30etara - 9.30etatik 12.30etara - 9.30etatik 12.30etara

Araba Etorb., 4  
 ARRASATE

Tfnoak: 79 01 32  
 79 65 54



Udalak alegazioak jarri dizkio Partzuergoaren behin-behineko araudiari.

## Ur Partzuergoak eraman nahi du uraren gestioa

Gipuzkoako ur Partzuergoak beregain hartu nahi du uraren gestio osoa eta horren arian, hainbat araudi bidali du Partzuergoaren barruan dauden Udaletara, azken horiek euren proposamenak bidal ditzaten. Partzuergoaren asmoa, sareen ardura eta uraren kontrola eramatea da. Hasiera batean, Urkultik herrira bitarteko gestioa hartuko luke eta aurrerago, urtegitik hasi eta etxetarainokoa. Uraren saneamendu eta estolderia lanak egiteaz, Partzuergoa arduratuko litzateke.

Behin-behiko araudi horren inguruan, Arrasateko Udalak zenbait iradokizun bidaliko du Partzuergora. Uraren prezioari dagokionez, zenbat eta ur gehiago kontsumitu, orduan eta gutxiago kobratzeko nahia azaldu

da Partzuergotik baina Udalaren ustez, gatzatzen den metro kubiko kopuruaren arabera kobratu beharko litzateke. Bestalde, Udalaren iritziz ez da garbi geratzen zein enpresek ordaindu beharko luketen saneamendu tasa. Behin-behineko araudi horretan esaten denez, gainera, egoera batzutan kontsumoa mugatzeko gaitasuna hartu nahi du Partzuergoak baina hori zein kasutan egingo duen zehazteko eskatuko du Udalak. Bukatzeko esan behar, erreklamazioen atalean ere ipini dela alegaziorik. Erreklamaziorik egitekotan, faktura ordaindu eta gero egin dadila nahi du Partzuergoak baina Udalak, berriz, ordaindu aurretik erreklamazioak egiteko aukeraren aldeko alegazioa jarri du.

## Eskola Politeknikoaren batzar orokorra

Joan den ostegunean batzar orokorra egin zuen Eskola Politeknikoak, 93-94 ikasturteko txostena aurkeztu eta etorkizunerako estrategiak finkatzeko. Joan den urteko ikasturtearen balantzea egitekoan, positiboa izan zela zehaztu zuten, ikasle kopurua gehitu egin delako eta ekonomiari dagokionez, irabaziak izan direlako. Kurtso berriari begira, orainartekoari heldu behar zaiola eta ekainean ezhoiko batzarra egingo dela adierazi zuten.

## Intsumisioaren aldeko mozioa

EAJ alderdiak intsumisioaren aldeko mozioa aurkeztu zuen Aramaion. Udal plenoa asteazkenean egin zen eta EAK, HBK eta EAJk mozioaren alde bozkatu zuten. Aramaioko EAJko zinegotzien iritziz, herritar gehienak intsumisioaren alde azaldu badira, udaletxeak ere nahi hori jaso egin behar du. Datorren asteartean, Iban Astondoa intsumisioari epaiketa egingo diotela-eta aurkeztu zuten mozioa.

# San Martin Osasundegia

**DERMATOLOGIA**

**UNITATEA**

Garciandia Doktorea

**PATOLOGIA DIGESTIBOEN**

**UNITATEA**

Otazua Doktorea

**OBSTETRIZIA ETA**

**GINEKOLOGIA UNITATEA**

Serrano Doktorea

**PSIKOLOGIA**

**UNITATEA**

J.R. Fernandez

**ZIRUGIA UNITATEA**

Alberro Doktorea

Ramon María Lili, 2

BERGARA

Tfnoa: 76 59 39/72

Faxa: 76 25 72



**Meho Kodro Errealeko jokalaria Arrasatera etorri zen ostiralean. Import Arrasate enpresara egin zuen bisita eta Arrasate Kirolakene ere egon zen. Kamiseta batzuk ikustera etorri zen, Mostarren bere futbol taldea izan zenari bidaltzeko. Donostiara joan baino lehen, autografo asko sinatu behar izan zuen.**

Bisitak ugari izaten dira gurean, eta horietako batzuri argazkia ateratzeko aukera aprobetxatzen dugu. Gasteizko IKA euskaltegian ikasten duen talde asko pasada dagoeneko ARKOTik, ATB eta ARRASATE PRESS zelan egiten diren ikustera eta Jaurlaritzako langile eta Gasteizko IKA euskaltegian hauek ere Oñatiko bernetegitik etorri ziren.



**Justo Segurari** omenaldia egin zion Mondra taldeak domekan. Mondra eta Arenasen arteko neurketa hasi aurretik ohorezko sakea atera zuen apaiz eskoriatzarrak. Eskoriatzako Zarimutz auzokoa da Justo jaiotzez eta San Sebastian egunean urrezko tanborra jaso zuen, Donostia eta Japongo Marugame hiria anaitzeko egindako lanarengatik.



## Atxen Aranzabal ALERGIA

**ASMA, RINITISA, URTIKARIA, KONTAKTU-EZEMA**

Lagun-Aro, Foru Aldundia, ASISA, PREVIASA eta IKIMESA aseguruak onartzen dira

Olarte kalea, 43 ☎: 79 81 00 / 79 81 11 ARRASATE

## HIES EKIMENA

Astelehen, astearte  
eta ostiral  
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

## ARRASATE HOTELA



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16



Besaidekoak Lizarrusti-Igara mendiz mendi igaro ondoren, elkartu ziren eta ondo jan eta tza-Balardi eta Amezketara Amezketako sagardotegian hobeto edan eta gero, 7.30ak joan ziren domekan. Goiza bazkaldu zuten. 90 bat lagun aldera bueltatu ziren.

Argazkiko neska-mutilak Jon Anduezak dugu ETBko lehiaketan. Gazte hauek aurkezten duen Gutxi Gorabehera saioara ondo pasatzeko eta ahal badute opariekin joan ziren asteartean. Egun gutxi barru bueltatzeko asmoz joan dira. Ea, bada, horrela den!



## IZEN PROPIOAK

● **Alberto Garro**, 26, urte, atxabaltarra izango da AR-KOko publizista berria. Albertok Enpresa zientziak ikasi ditu Bilbon. Orain arte Aretxagazetan ibili da lanean.


● ALMEN ikastolak aukeratu du Erretore Kontseilu berria: Lehendakaria **Iñaki Bordes** izango da; Idazkaria **Edurne Balzategi**; partaide berriak, **Patxi Lazkano**, **Mikel Alzola**, **Jasone Orbegozo**, **Alizia Urrutia** eta **Marilu Madinabeitia**.

● San Viator ikastolak ere juntako partaide berriak aukeratu ditu. Lan bazkide berriak **Luis Mari Azpiazu**, **Amaia Iturbe** eta **Juan Luis Lopez** izango dira. Guraso bazkide berriak **Arantza Akizu**, **Benedicto Lorenzo** eta **Ibon Irastorza**.

● **Txitxinpe** ●

Berezitasunak:  
Kafea, ardoa, urdaitegia,  
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76



LOGOPEDIA  
ZENTRUA  
ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.  
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

**TTUKUN**

Fotokopiak  
Enkuademazioak  
Koloretako fotokopiak  
Planoen erreproduzioa  
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE  
Tfnoa: 79 46 62

# ARKO-k Erredakzio-buru lanpostua bete behar du

## BALDINTZAK:

- Kazetaritza eta herri komunikabideetan esperientzia.
- Euskara maila ona.
- Gidatzeko karneta.

## BALORATUKO DENA:

- Arrasate ezagutzea.
- Harremanetarako baimena.

## LANPOSTUAREN BETE BEHARRAK:

- ARRASATE PRESS-eko zuzendaritza eta ARKO-ko medioen erredakzio buru.

## KURRIKULUMAK:

EPEA: Otsailaren 15a.  
Helbidea: Azoka kalea, 1  
20.500 ARRASATE  
Tfnoa: (943) 77 08 15



ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

# GIDA 95

## LEINTZ BAILARAKO DENDA, PROFESIONAL ETA ZERBITZUEN GIDA.

Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz-Gatzagari buruzko informazio oso eta zehatzena eskaintzen saiatu bagara ere, beharbada zurea falta izango da.

Hurrengo gidan agertu edota berrikuntzaren bat proposatu nahi baduzu bidali iezazkiguzu zure datuak eta proposamena hurrengo helbidera:

ARKO (Arrasate Komunikabideak)  
Azoka kalea 1  
20.500 Arrasate

- EZ DAUKAT GIDARIK ETA JASO EGIN NAHI NUKE.
- GIDA 95-EAN AGERTUTAKO INFORMAZIOA EZ DA ZUZENA.
- NIRE DENDA EDO ZERBITZUEN BERRI EZ DA AGERTU GIDA 95-EAN ETA HURRENGO ALEAN AGERTZEA NAHI NUKE.

(Marka ezazu dagokizun egoera.)

ZER SAIL BOTATZEN DUZU FALTAN?

IZEN-DEITURAK: \_\_\_\_\_  
IZEN KOMERTZIALA: \_\_\_\_\_  
HELBIDEA: \_\_\_\_\_  
TELEFONOA: \_\_\_\_\_

Gida 95



ARKO • ARRASATE KOMUNIKABIDEAK



# Futbito 94-95

# Txapelketa

# ZALDIBAR ZALDIBAR

Babesleak: JMA, Kajoj taberna eta Arrasate Kirolak



Gaizka Olabarrieta

## Nuevo taberna lider berria

14. jardunaldian aipatzeko moduko emaitza dexente egon da. "MSM Ingenieria Integral" 3. tokian sailkatuta dagoen taldea eta Sukarek, sailkapenean 17. dagoenak neurtu zituzten indarrak zapatuan, eguerdiko ordubatean. Sukarrek 6 eta 4 irabazi zion MSM Ingenieria taldeari; ezusteko galanta. B taldeko liderra, "Argi Ibili", larri eta estu ibili zen Borrock'n Roll taldearen kontra jokatu-tako partiduan. Azkenean 2 eta 1 irabazi zuen liderrak. Justu ibili ziren beste batzuk, Danok Lagun taldeko-

ak izan ziren; aurrean Orkatz izan zuten, azken sailkatua eta azkenean 4 eta 3 irabazi zuten Danok Lagunekoek. Dena dela, aipatzeko datu interesgarriena B taldean gertatutako lider aldaketa da. Orain arte multzo horretan liderra Trikiti bazen ere, 14. jardunaldian Nuevo tabernak esku-ratu du lehen postua. Trikitik bana berdindu zuen Los Dimyren kontra azken jardunaldian eta Nuevo Tabernak 5 eta 1 irabazi zion Petroleros taldeari. Horrela, bada, Nuevo taberna dugu lider berria 23 punturekin.

Arreta  
haundiko  
sukaldea

Garagartza auzoa

**UGARAN**  
jatetxea

Tfnoa: 79 76 58

Giro  
abegikorra

ARRASATE

## Futbito Txapelketa

### A taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
SALENCO Y KON.	14	12	0	2	68	32	<b>24</b>
BUKANAK	14	10	3	1	62	40	<b>23</b>
ADELAIDA HAIZEA	14	10	2	2	70	28	<b>22</b>
ZULOAK	14	9	4	1	62	31	<b>22</b>
CERV. LEINTZ	14	10	1	3	83	30	<b>21</b>
ZOTZ	14	9	2	3	53	39	<b>20</b>
FOSFOROS	14	9	2	3	54	25	<b>20</b>
KRISKIBALDA	14	8	0	6	49	51	<b>16</b>
HIREI	14	7	2	5	69	41	<b>16</b>
ARRAS. KIROLAK	14	6	3	5	60	52	<b>15</b>
FRAGUEL GOL	14	5	2	7	48	53	<b>12</b>
LOS DALTON	14	5	2	7	47	62	<b>12</b>
ATERPE	14	5	1	8	43	54	<b>11</b>
GANBELAS	14	4	2	8	42	43	<b>10</b>
ASTOEN VILLA	14	4	1	9	41	76	<b>9</b>
INSERT COIN	14	3	2	9	57	72	<b>8</b>
BAYER LEINTZ	14	2	2	10	37	71	<b>6</b>
EZT. EGIN ARTE	14	1	4	9	31	78	<b>6</b>
ILUNA TABERNA	14	2	1	11	33	83	<b>5</b>
STRAUSS	14	1	0	13	38	86	<b>2</b>

### B taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
NUEVO TABERNA	14	11	1	2	67	37	<b>23</b>
TRIKITI	14	10	2	2	77	23	<b>22</b>
SUM. UGARTE	14	10	2	2	65	26	<b>22</b>
TOTEM	14	9	3	2	69	28	<b>21</b>
TXEYENEX	14	9	2	3	63	35	<b>20</b>
PEPELUS	14	9	1	4	63	35	<b>19</b>
UGLUS TXINATO	14	8	3	3	75	31	<b>19</b>
DANOK LAGUN	14	8	3	3	64	39	<b>19</b>
PUB PEOPLE	14	9	1	4	79	51	<b>19</b>
LOS DIMY	14	7	2	5	65	40	<b>16</b>
PETROLEROS	14	7	2	5	58	41	<b>16</b>
BERANGO SUK.	14	7	1	6	53	42	<b>15</b>
ANBOTOSTE	14	4	3	7	36	43	<b>11</b>
NO COMMENT	14	3	4	7	34	78	<b>10</b>
LA BANDA	14	2	2	10	34	76	<b>6</b>
ARRASATE ZOO	14	2	1	11	32	84	<b>5</b>
TOVARIXTX	14	2	1	11	19	64	<b>5</b>
EZKIN. HONTZAK	14	2	1	11	26	77	<b>5</b>
MONTERREY TAB.	14	1	2	11	29	92	<b>4</b>
ORKATZ	14	1	1	12	32	98	<b>3</b>

### C taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
IRATI STS	14	13	0	1	88	22	<b>26</b>
LORATEGI POTROAK	14	10	2	2	50	24	<b>22</b>
EQUUS	14	10	1	3	72	37	<b>21</b>
ORLANDO PIRATAS	14	9	1	4	66	36	<b>19</b>
ARTZANKOS UDAL.	14	9	1	4	52	39	<b>19</b>
AUTOS MURU	14	9	1	4	52	29	<b>19</b>
FRANZIZKANER	14	7	2	5	48	44	<b>16</b>
EXCA LETE	14	8	0	6	49	32	<b>16</b>
KE OXTIAS	14	8	0	6	55	60	<b>16</b>
PERRAHOTSA	14	7	1	6	34	40	<b>15</b>
NABARROS	14	7	0	7	58	54	<b>14</b>
JOTAKABAU	14	4	4	6	40	49	<b>12</b>
KOKA JUNIORS	14	5	2	7	31	42	<b>12</b>
BODISCA	14	5	0	9	37	45	<b>10</b>
BANEUKO	14	4	2	8	33	45	<b>10</b>
LEYA	14	4	1	9	54	75	<b>9</b>
D.K.B	14	4	0	10	31	60	<b>8</b>
FOTO IMAGEN	14	2	2	10	35	54	<b>6</b>
TXOKO TABERNA	14	2	2	10	24	71	<b>6</b>
POTROSORRI	14	2	0	12	32	83	<b>4</b>

### D taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	13	12	0	1	82	25	<b>26</b>
MSM INGENIER	13	11	1	1	66	24	<b>25</b>
AC SURCOS	13	11	1	1	85	45	<b>23</b>
D. A. IRIZTU	13	8	3	2	64	41	<b>21</b>
MIKELOS	13	9	0	4	60	32	<b>19</b>
OJO AVISORE	13	8	1	4	56	41	<b>19</b>
LOS HEREDIA	13	8	1	4	57	46	<b>17</b>
LAUTHERBRUNNEN	13	7	0	6	57	44	<b>14</b>
SOKOAKOAK	13	6	2	5	48	49	<b>14</b>
BORROCK'N ROLL	13	5	3	5	54	44	<b>14</b>
TRONKOTEAK	13	4	4	5	43	58	<b>13</b>
BZ SISTEMAS	13	5	1	7	30	42	<b>13</b>
ALTZA PORRU	13	5	1	7	47	46	<b>12</b>
KAKAJAURI	13	5	0	8	42	56	<b>10</b>
ANORTHOSIS	13	5	0	8	28	33	<b>10</b>
MOTZ	13	3	1	9	49	59	<b>8</b>
SUKAR	13	2	2	9	42	69	<b>8</b>
TEODOLITO	13	2	0	11	32	84	<b>6</b>
ELISABETH	13	2	0	11	26	73	<b>5</b>
RESAKAS	13	1	1	11	33	88	<b>3</b>



# URONDO

## elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE



**Irati STS eta Orlando Piratas taldeek zapatuan jokatuko dute goizeko 10etan; neurketa ikusgarria izango da. Domekan hiru partidu gomendatuko dizkizuegu: Txeyenex eta Suministros Ugarteren artekoa goizeko 9etan, MSM Ingenieria Integral eta Argi Ibilik jokatuko dutena, eguerdiko 12etan eta Pepelusek Danok Lagunen kontra ordubatean jokatuko duena.**

**BELARRIRA**

◆ **Atsedena.** Potrozorri, Artzankos Udalaitez eta Sokoakoak taldeek jai izango dute hurrengo jardunaldian. Arrazoia? Betikoa, aurkari izan behar zituzten taldeak txapelketatik kanpo daudela. Astero, beraz, lehen fasea bukatu arte zenbait taldek atsedena izango dute.

◆ **Aurreratutako neurketa.** Irati STS eta Ke Oxtias taldeek ostiralean jokatu zuten eta Iratik 10 eta 2 irabazi zion Ke Oxtias taldeari. Neurketa ostiralera aurreratzearen arrazoia, Ke Oxtiasekoak eskiatzera joan behar zutela Formigalera. Eskiatzen partiduan baino hobeto ibiliko zirela uste dugu, bestela...

◆ **Motz eta Zotz.** A ze para! Datorren zapatuan talde biek arratsaldeko 2etan jokatuko dituzte neurketak. Motzek Resakasen kontra eta Zotzek Hirei taldearen kontra. Gero Motz eta Zotz taldekoak elkarrekin sagardotegira joango dira afaltzera. Sagardoaz pasatu barik!

**EMAITZAK**

**A taldea**

- Zotz 4 - Aterpe 3
- Cerv. Leintz 4 - Hirei 4
- Iluna Taberna 2 - Fraguel Gol 8
- Strauss 0 - Zuloak 3
- Bayer Leintz 0 - Arrasate Kirolak 4
- Kriskibalda 4 - Eztanda egin arte 1
- Astoen Villa 0 - Adelaida Haizea 8
- Bukanak 5 - Insert Coin 5
- Salenco y Konpañia 4 - Ganbelas 2
- Fosforos 5 - Los Dalton 0

**B taldea**

- Txeyenex 3 - Beango Sukaldeak 2
- Uglys Txinato 0 - Sum. Ugarte 2
- Ezkiñako Hontzak 0 - Totem 3
- Monterrey Taberna 5 - Pub People 9
- Los Dimy 1 - Trikiti 1
- Petroleros 2 - Nuevo taberna 5
- Pepelus 9 - La Banda 4
- Orkatz 3 - Danok Lagun 4
- Anbotoste 1 - Tovarixtx 0
- No Comment 3 - Arrasate Zoo 5

**C taldea**

- Irati STS 10 - Ke Oxtias! 2
- Equs 4 - Orlando Piratas 3
- Potrozorri 2 - Baneuko 6
- Autos Muru 1 - Foto Imagen 0
- Perrahotsa 1 - koka Juniors 3
- D.K.B 4 - Frantziskanner 2
- Nabarros 3 - Jotakabau 5
- Lorategi Potroak 4 - Txoko Taberna 1
- Bodisca 0 - Exc. Lete 1
- Leya 7 - Artzankos Udalaitez 2

**D taldea**

- Kakajauri 3 - Tronkoteak 5
- Motz 3 - Mikelos 3
- Altza Porru 6 - Resakas 3
- MSM Ingenier 4 - Sukar 6
- Borroch'n Roll 1 - Argi Ibili 2
- D. A Iriztu 1 - Lautherbrunnen 0
- Sokoakoak 1 - A.C Surcos 2
- Elisabeth 1 - Anorthosis 0
- Los Heredia 3 - Ojo Avisore 1
- B.Z Sistemas 2 - Teodolito 2

**I  
R  
T  
A  
B  
E  
R  
N  
A**

Ferrerias kalea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 56 11

**ARTOLA  
KOMERTZIALA**

Zerkaosteta, 3  
Tfnoa: 79 14 40  
ARRASATE

**S. CARRASCAL S.L.**

**Bertan egindako:**

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

**Fabrikari erakusketa**

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a  
Tfnoa /FAX: 79 01 82

**ERAIKUNTZAK**

Olarte, 30 etxabea.  
Tfnoa: 79 77 11  
Faxa: 79 77 11  
ARRASATE  
Postakutxa: 118

**ARRASATEN**

**POXPOLIN**

**Umeentzako oinetakoak eta berezitasunak**

Zerkaosteta, 15  
Tfnoa: 79 61 13

**ASTEBURU HONETAN**

**Larunbata 28**

**Zaldibar**

- 8.50 No Comment - Berango Sukaldeak
- 10.00 Irati STS - Orlando Piratas
- 11.00 Kakajauri - Mikelos
- 12.00 Salenco y Konpañia - Los Dalton
- 13.00 Ezkiñako Hontzak - Pub People
- 14.00 Los Heredia - Teodolito
- 15.00 Nabarros - Txoko Taberna
- 16.00 Uglys Txinato - Totem
- 17.00 Lorategi Potroak - Exc. Lete
- 18.00 Elisabeth - Ojo Avisore
- 19.00 Leya - Ke Oxtias

**Iturripe A**

- 11.00 Bukanak - Ganbelas
- 12.00 Petroleros - La Banda
- 13.00 Bayer Leintz - Eztanda egin arte
- 14.00 Zotz - Resakas
- 15.00 Anbotoste - Arrasate Zoo
- 16.00 DKB - Jotakabau
- 17.00 Strauss - Arrasate Kirolak
- 18.00 Altza Porru - Sukar

**Iturripe B**

- 12.00 Borrock'n roll - Lautherbrunnen
- 13.00 Los Dimy - Nuevo Taberna
- 14.00 Motz - Resakas
- 15.00 Cerv. Leintz - Fraguol gol
- 16.00 Equis - Baneuko
- 17.00 Orkatz - Tovarixtx
- 18.00 Astoen Villa - Insert Coin

**Igandea 29**

**Zaldibar**

- 8.50 Txeyenex - Sumis. Ugarte
- 10.00 Kriskibalda - Adelaida haizea
- 11.00 Autos muro - Koka Juniors
- 12.00 MSM Ingeni - Argi Ibili
- 13.00 Pepelus - Danok Lagun

**Iturripe A**

- 8.50 Perrahotsa - Frantziskanner
- 12.00 D.A Iriztu - AC Surcos
- 13.00 Fosforos - Aterpe

**Iturripe B**

- 11.00 Monterrey Taberna - Trikiti
- 12.00 BZ Sistemas - Tronkoteak
- 13.00 Iluna Taberna - Zuloak



## A taldean 941 gol Gainontzekoetan mila goletik gora

**Dagoeneko**, 14. jardunaldia jokatuta eta eta gol kopuru handia sartu dela esateko moduan gaude. A taldean 941 gol sartu dituzte eta gainontzeko multzotan 1.000 goletik gora. B taldean 1048, C multzoan 1047 eta Dn 1040, datu adierazgarriak oso. Gol gehien sartu duen taldea Irati STS da, 88rekin. AC Surcosek 87 sartu ditu eta Cerverceria Leintzek 83. Gol gehien jaso duen taldea Orkatz dugu: 98 gol sartu dizkiote eta Resakasek 94 gol jaso ondoren oso gertutik

jarraitzen dio. 3. talde goleatuena Strauss dugu, 86 gol jaso ditu eta. Jokaturako neurketa guztiak irabazi dituenik ere ez dago, 13 partidurabazita Irati STS eta Argi Ibilik daramatzate, 12rekin Salenco y Konpañia dago. Partidu guztiak galdu duenik ere ez dago, 13 neurketa galduta Strauss-ek daramatza, 12rekin Potrosorri, Resakas eta Orkatz ditugu. Saillapenean puntu gehien duten taldeak Argi Ibili eta Irati STS dira 26 punturekin. Gu txien Straussek, 2 besterik ez.

**VE ECUADOR**

Bidaiak

**Bidaia zoragarri bat irabazi nahi baduzu, har ezazu parte ATBketan lehiaketan Ez galdu aukera!**

Kontzeziño, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 14 06



*Kalitate gorena leihoetan.*

**LANTEGIA ETA ERAKUSKETA**

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

# A. Loiti: "Udalaren ardura eta partikularrena bereiztu egin behar dira"

Itxaro Zubillaga

**Alberto Loiti azken 7 urteotan Zerbitzuen arduradun lana betetzen du Arrasateko Udaletxean. 4 urtetan Lan eta Hirigintzako zuzendaria 4 urtetan izan eta gero, zerbitzuen ardura eman zioten 1987an: ordutik ona 47 urteko arrasatear horrek herriko zerbitzuen bilakaera gertutik ezagutu du.**

**-Herriko mantenimenduan zenbat jende egiten du lan?**

-Zerbitzuen sektorea lau arlotan dago banatuta, horietatik batzuk Udalaren eskutik daude eta beste batzuk kontratatutako enpresek darabiz. Obren atalean 14 langile ditu Udalak eta uren brigadan 5 lagun. Guztiak Udaletxeko langileak dira. Lorategiaren zainketaz Parkes y Jardines enpresako 11 langile arduratzen dira eta Cep-sako langileak 18 lagun dira guztira. Zaborra biltzeko 5 lagun ditu Mankomunitateak.


**- Ze zerbitzu eskaintze du Arrasateko Udalak?**

- Udalean dauden zerbitzuak lau dira: Lorategiak, ur zerbitzua, Obrak eta zaborrak.

## **HERRIKO EGOERA ZERBITZUZ ZERBITZU**

- Beste herri batzuekin parekatu ezker, ze egoeratan dago Arrasate, zerbitzuei dagokionez?

- Zaila da galdera hori erantzutea. Lehendabizi, herri bakoitza zein egoeratan dagoen ikusi behar litzateke. Herri berria bada, zerbitzu



Alberto Loiti, zerbitzuetako arduraduna da azken 7 urteotan.

berriak izango ditu. Arrasateri dagokionez, erdi mailan dagoela esan dezakegu. Zerbitzuei errepaso eman, lorategietan, biztanleko me-22tro karratuak ikusita, ondo dago; dena dela, azken urteotan jende berarekin metro karratu gehiago lantzen hasi gara eta kalitateak behera egin du. Aurrera begira, neurri berriak hartzen ez badira arazo bihur daiteke. Zaborren zerbitzuan duela 4 urte makina berriak ekarri ziren eta hobekuntza handia izan zen hori. Hala ere, kontuan hartu behar dugu gero eta urbanizazio gehiago dagoela herrian eta lan gehiago dakarrela horrek. Uren zerbitzuari dagokionez, azken urteotan 220 milioiko inbertsioak egin dira, eta aurrera begira beste horrenbestekoak egin behar dira; ur sarea egoera onean jartzeko, luzera begira ditugun prespektibak onak dira. Argiaren zerbitzuan energiaren aurrezpena egiteko asmoa dugu eta horrek aldaketak asko ekarriko ditu. Epe

motzean egingo dugun lan nabarmenena saneamenduko sarea konpontzea izango da.


**- Ze harreman duzue herri-tarrekin?**

- Jendea gero eta gehiago etortzen da, gehienetan kekak ematera. Kexa batzuk onargarriak izaten dira, beste batzuk berriz ez. Arazoa da jendeak ez duela bereizten zer den Udalaren ardura eta zer partikularrena. Esaterako, azken urteotan euriteak izan direla eta, ura sartu da zenbait etxetan; arazo hori ez da Udalaren ardura, etxe horretako bizilagunena baidir. Ura, sarea txarto dagoelako sartu bada, orduan gure ardura litzateke.

**- Zeintzuk dira urtero aldatu beharreko zerbitzuak?**

- Azken urtetan inbertsioak egiten ari gara jarlekuak, paperontziak, hesiak eta abar berritzeko. Ia zerbitzu denetan ari gara berrikuntzak egiten, herritar guztien gustora egitea zaila den

**B**andalismoa da zerbitzu honetako arazo larriena. Udalak zerbitzu berria egiten duenean kontrako indar bat agertzen da, egindakoa apurtzeko"



Itsuendako semaforoak egokituko dituzte.

arren. Inbertsioekin bukatzen dugunean, aurrezaintzeko mantenimenduaz hasiko gara, hau da, apurtzen diren gauzak konpontzen.

**- Zu zeu sartu zinenetik asko aldatu da zerbitzuen saila?**

- Bai, asko aldatu da, beharrak aldatu egin dira, langile kopurua ere bai. Orena, dena dela, ez da jende asko izatea zerbitzu mailan, hobe litzateke gauzak ondo zaintzen direlako jende gutxiago behar izatea.

**ARAZO LARRIENAK**

**- Askotan kexatu izan zarete bandalismoaz?**

- Bandalismoa da zerbitzu honetako arazo handiena. Udalak zerbait berria egiten duenean kontrako indar bat agertzen da, egindakoa apurtzeko. Bandalismoak bi arazo ditu; ekonomikoa batetik eta berriro ere ekintza hori ez errepikatzeko hartu beharreko neurriak zehaztea bestetik.

Bandalismoa zerbitzu gehienetan ematen den arren, lorategietan, zakarrontzi, banku, hesi eta horrelakoetan izugarrikoa da. Lorategietan gertatzen dena kezkarria da oso eta jendea ez da horretaz ohartzen. Jardinak eta parkeak dira herrian izan ditzakegun berdugune bakarretakoak, baina zaintzen ez badira hori ere ez dugu izango.





**- Txakurrak ere arazo bihurtu dira herrian; hartu behar duzue neurririk?**

- Txakurrak arazo bihurtu dira, izan ere, Arrasaten jabe-bako txakur asko dago kalean eta txakur horiek janari bila zaborretara joaten dira; poltsak apurtu eta zikinkeria lurrean geratzen da eta hortik etor daitezke arazoak. Beste arazo bat txakur-kakak dira, azken finean pertsonon bezalakoak dira eta. Txakurren "eginbeharrak" lorategietan izugarriko kalteak sortzen dituzte eta lore asko erre egiten dira horren erruz.

**LORATEGIAK**

	1993	1994
Urteko kostua	48.578.344	50.983.553
Lehenengo azalera	170.000	186.843
Azaleraren hazkundea	16.306	36.189
Gaur egungo azalera	186.843	223.032
Lorazain kopurua	11	11
m <sup>2</sup> biztanleko	7,38	8,81

	KOPURUA	MANTENIMENDUA	INBERTSIOA URTEKO	BANDALISMOA	PERTSONA BAKOITZEKO
Barandilak	14.839 m luzera	5.500.000 Pta	5.500.000	-	0,56
Bankuak	765	425.000	12.000.000	%3	1/33
Zakarrontziak	588	687.000	3.641.000	%2	1/30

		KOPURUA	MANTENIMENDUA	INBERTSIOA URTEKO	PTA. ARRASATEAR BAKOITZEKO
	Farolak	2.841	4.250.000	15.000.000	587
	Semaforoak	30	1.200.000	-	46
	Pinturak	-	4.500.000	4.500.000	176
	Seinaleak	-	2.100.000	-	82

Horrek kalte ekonomiko izugarria ekar dezake eta horren aurrean ezin dugu ezer egin. Jendea kontzientzietan ez bada, Udalak ezer gutxi egin dezake.

**- Udal Ordenatzak, zergak, garestiak ala merkeak dira Arrasaten?**

- Zer eskaintzen den ikusi behar da eta horren arabera

baloratu. Guk zerbitzu asko eskaintzen dugu ikusten ez direnak eta jendeak ez ditu baloratzen; esaterako, ur sarearen konpontzea, duela 4 urte nola zegoen eta orain nola dagoen ikusi ezker, aurrera pauso garantzitsua eman da. Frantzian lorategi asko partikularrak dira eta ez da ezer gertatzen. Guztiok dugun pentsakera aldatuko bagenu

hobeto ibiliko ginateke.

**- Itsuen Semaforoak noizko jarriko dira?**

- Bi hilabete barru jarrita egongo dira. Betidanik izan dugu jartzeko asmoa, baina aurretik azterketa sakon bat egin nahi genuen non jarri zehazteko. Orain, jendeak eskatu egin dituzenez, hainbat lasterren jartzea erabaki dugu.

## Zaborrak: errespetatu itzazu orduak

Tokatzen ez den egunean eta ezordutan kaleratzen direlako arazo bihurtzen ari dira zaborrak Arrasaten. Zaborrak uzteko dagoen ordutegi bakarra gaueko 7etatik zaborra jasotzen den unerartekoa da. Ezarritako ordutegi eta lekuak bete ezean, 5.000 pezetako isuna jarriko du Udalak eta berriro ere horretaz jardunez gero, 10.000 pezetakoa. Zaborren bilketa egun eta leku zehatzetan egiten da:




### Astelehena, asteazken eta ostiraletan

Gazteluondo, Ferrerías, Iturriotz, Erdiko Kale, Zerkaosteta, Arrasate pasealekua, Garibai 5. 7. eta 9. Kontzeziño, San Andres aldea, Begoña auzoa, Loramendi kalea, Uribe, Uribarri, Garagartza auzoa, Gesalibar auzoa, Erguin eta Gorostizan.

### Astearte, ostegun eta igandetan

Kalealdea, Munar, Aragoa, Zarugalde, Bizkaia Etorbidea, Otalora, Olarte, Ignazio Zuloaga, Pablo Uranga, azoka, Okendo, Maalako Errabala, Alfonso X Jakintsua plaza, Iparragirre plaza, San Bixente Ferrer 1, 13, 15, Maala, Aldai, Aldaigain, Legargain, Jose Luis Iñarra, Santamaina, Santa Teresa eta Musakolan.

Bestalde, kaleetan dauden beira eta paperarentzako edukiontzietan materiale horiek bakarrik bota daitekeela gogoratu behar da. Azken boladan edukiontzietan zabor poltsak uzten dituztela konturatu dira Udaleko arduradunak eta hori ere zigortu egingo dela jakin arazi digute.

		GUZTIRA 94an	BIZTANLE BAKOITZEKO		
	Beira	263.597 Kilo	10,32 Kilo		
		MANKOMUNITATE GUZTIAN	MANKOMUNITATEKO BIZTANLE BAKOITZEKO		
	Papera	860.700 Kilo	13,26 Kilo		
		KALEKOAK	LANTEGIKOAK	MERKATUKOAK	ZABORRA BIZTANLEKO
	Zaborrak(Kg)	5.918.460	500.000	285.000	231,8 Kilo

# Casablanca eta Arrasate aurrez aurre

**Arrasate** eskubaloitza taldeak Casablanca taldearen kontra jokatu du larunbatean Zaragozan. Aurrez aurre izango ditugun bi taldeak sailkapenean erdialdean daude kokatuta. Casablanca 5. tokian dago 12 punturekin. Gaur arte, 12 neurketa jokatu ditu eta 5 irabazi, 2 berdindu eta 5 galdu. Arrasatek 6. lekua betetzen du. Etxeko taldeak 11 partidu jokatu ditu, Torrelavega taldearen kontra urtarriaren 14an jokatu behar zuena bertan behera geratu zelako. 11 norgehiagoketatik 3 irabazi ditu Arrasatek, Burgos, Zaragoza eta Torrelavegaren kontra, bakarra berdindu eta 7 galdu. Golei dagokienez, 229 gol sartu ditu denboraldian zehar eta 260 jaso. Datorren larunbatean Zaragozako Casablanca taldearen kontra jokatu behar duen neurketarekin, beste bi faltako zaizkio Arrasateri lehen fasea bukatzeko.



Eskubaloitza jokalariek irabazi egin behar dute gauzak okertzen ez joateko.

Canariaseko Telde taldea eta Torrelavega taldea, baina bi talde hauek Federazioarekin arazoak dituztenez, ez da ziurra partidu horiek jokatu diren. Lehen fasea bukatu ondoren, bigarrenarekin hasiko dira eskubaloitza taldeak.

Bigarren fasea bitan dago banatua: igotzeko liga eta jeisteko liga. Une honetan ez dago esaterik zein ligatan jokatu duen Arrasatek, oraindik 3 neurketa falta zaizkio jokatzeko eta horietan lortutako emaitzak erabakiorrak

izan daitezke liga zehazteko orduan. Esan behar da Zaragozara joateko autobusa antolatuta dutila. Larunbatean arratsaldeko 2.30etan irtengo du Garibaitik. Agitartekoak eta zerbezak izango dituzte autobusean doazenek.

## Urbina-Maltzaga bolada onarekin jarraitu guran

**Urbina-Maltzaga** eta Señorío de Zuasti izango ditugu nor baino nor, Iruñean jokatu den derbian. Domekan eguerdiko 12etan neurtuko dituzte indarrak bi taldeek. Urbina-Maltzaga taldeak 5 garaipen lortu ditu jarraian eta Txus Brizuelaren mutilak moralez gainezka daude. Denboraldian 7 garaipen lortu dituzte Valladolid, Señorío de Zuasti, Leon, Askatuak, Portas, Valladolid eta Coruñaren kontra. Azken neurketa Coruñaren kontra jokatu zuten Iturripen eta Arrasateko taldeak joku ona eta espektakuloa erakutsiz 88 -75 irabazi zuen. Domekako neurketa ez da nolanhikoa

izango, talde biek 22 puntu dituzte eta sailkapeneko 9. eta 10. tokiak betetzen dituzte. Joku bizia eta bien arteko lehia ziurtaturik daude. EBA ligako taldeek 15 partidu jokatu dituzte gaur arte eta bigarren faseko 3. neurketa jokatu dute asteburu honetan. Urbina-Maltzagak azken partiduetan erakutsi duen mailan jokatzeko badu, beste garaipen batekin etor daiteke Iruñea aldetik. Bestalde, partidua ikustera joateko autobusak antolatu ditu saskibaloitza taldeak eta Otxoa peñak. Autobusak goizeko 9etan irtengo du Garibaitik; partidua bukatutakoan izango da itzulera.



6. garaipena etor daiteke Arrasatera domekan.



**PENALTIAK**

**Pilotariak ohorezko liga-  
ren barruan paletan eta  
eskuz banaka etxean  
jokatuko dute larunba-  
tean goizeko 11.30etatik  
aurrera. Pilota partiduak  
Musakolako frontoian  
izango dira, Iturripeko-  
an palaz jokatzetik ez  
dagoelako. Paletan Arra-  
sate eta Altza izango  
ditugu aurrez aurre eta  
eskuz banaka Arrasate  
eta Mallabia. Arrasate  
tik Iñaki Kortak jokatuko  
du eta Mallabiatik Mendiak.  
Neurketa hauek Arrasa-  
ten jokatzen diren azke-  
nak izan daitezke. Arra-  
sateko frontoiak ez dau-  
de arautuak ohorezko  
liga jokatzeke eta arra-  
zoi horregatik pilotariak  
beste leku bat bilatu  
behar izan dute. Dato-  
rren astetik aurrera Ara-  
maioko frontoian joka-  
tuko dira ohorezko liga-  
ko partiduak.**

# Mondrako emakume taldea sendo aurreko postuetan

**Mondrako** emakumeen taldeak 20 jardunaldi jokatu ditu dagoeneko. Jokatuak partiduetatik 14 irabazi egin ditu, bi berdindu eta 4 galdu. 20. jardunaldia jokatuta, Arrasateko taldea 3. postuan dugu 44 punturekin. Aurretik Zumaiako taldea dago puntu kopuru berberaz, eta lehen tokian Lagun Onak taldea dago 52 punturekin. Emakumeek abenduan bukatu zuten lehen buelta eta une honetan bigarrenean murgilduta dabilta eta ligak martxo-arte iraungo du. Larunbatean Mondrako jokalariek Elgoibarren kontra neurtuko dituzte indarrak, Elgoibarren. Elgoibar 4. tokian dago sailkapenean, Mondra baino puntu bat beherago eta 42 puntu ditu. Mondraren eta Elgoibarren arteko partidua, beraz, bizia bezain

lehiatsua izan daiteke bi taldeentzat. Liga bukatu ondoren, apirilaren 2an, Kopa jokatzen hasiko dira Arrasateko neskek. Duela 2 urte Arrasaten geratu zen kopa eta, aurten ere, kopa izango da arrasatearren helburua. Hale ere, liga irabazteko aukerarik ez dutela galdu esan behar da, beraz, gau-

zak ondo badoaz titulu biak lor ditzateke. Emakumeen taldean lau fitxaje berri egin dituzte aurtengo denboraldirako: Amaia Luengo, Iduurre, Alaitz eta Zorione; gai-nontzekoak ia zkoak dira. Gaur arte, bestalde, Bakartxo Luengo, taldeko kapitaina, da goleatzaile sutuena.



Mondrako neskek sailkapeneko 3. postuan daude.

**EMAITZAK**

Futbola	Saskibaloia	Don Bosco 46	Eskubaloia	Rugby-a
3. maila: Mondra 1 Arenas 1 Emakumeak: Mondra 3 UDA 0 2. erregionala: Zestoa 1 Mondra 2 Jub Ohorezko Liga: Euskalduna 1 Mondra 0 Lehen kadeteak: Anaitasuna 3 - Arrasate 1 2. erregionala: Ilintxa 6 - Arrasate 3 Infantilak: Arrasate 8 Urki 2 Hurrengoak: 3. maila: Balmaseda - Mondra. Igandea. 4.15etan. Emakumeak: Elgoibar - Mondra. Larunbata. 12.15etan. 2. Erregionala: Mondra - Aloñamendi. Igandea. 4etan. Jub Ohorezko Liga: Don Bosco - Mondra. Larunbata. 4.15etan. 2. Jubenilak: Gazteak - Arrasate. Larunbata. 3.30etan. lehen kadeteak: Arrasate - Bea-	sain. Igandea. 11etan. 2. kadeteak: A.bat - Arrasate. Igandea. 11etan. Infantilak: Eibartarrak - Arrasate. Larunbata. 12.30etan.	Don Bosco 46 Kadeteak B: Almen B 32 - Urbina maltzaga 40 Hurrengoak: EBA Liga: Señorío de Zuasti. Igandea. 12etan. Iruñean Seniorrak S-23: Zarautz - Urbina Maltzaga. Larunbata. 7.30etan. Juniorrak A: Iraurgi - Urbina Maltzaga. Larunbata. 4.30etan. Juniorrak B: Aralar Kirolak - Urbina Maltzaga. Larunbata. 4etan. Seniorrak Emak: Urbina Maltzaga - Lasarte Oria. Larunbata. 6etan. Kadeteak A: Urbina Maltzaga - Aldapeta. Larunbata. 12etan. Kadeteak B: Urbina Maltzaga - Askatuak. Larunbata. 10etan. Kadeteak Emak B: Urbina Maltzaga - Ondartza-Landetxa. Larunbata. 4etan	Lehen maila: Arrasate 21 Ereintza 27 Lehen territoriala: Pasaitarra 23 Arrasate 10 Hurrengoak: Lehen Maila: Casablanca - Arrasate. Larunbata 7.30etan. Lehen Territoriala: Arrasate - Aloñamendi. Igandea. 12etan.	Lehen Maila: Arrasate 8 Bilboko Unibertsitarios 10 Jubenilak: Arrasate 5 Eibar 22 Arrasate: Atletico Bera Bera 5 Arrasate 10 Hurrengoak: Lehen Maila: Atletico Bera Bera - Arrasate. Jubenilak: Urretxu - Arrasate. Emakumeak: Arrasate - Irun. Larunbata. 4etan. Gargartzan.'
			Futbitoa	Pilota
			Lehen maila: Arrasate 3 Castro Urdiales 3 Arabako territoriala: Arrasate 10 Ra 55 3 Hurrengoak: Lehen Maila: Erandiotarra - Arrasate. Larunbata. 6.15etan. Leioa. Arabako territoriala: Alegria - Arrasate. Larunbata. 6etan. Alegria.	Eskuz Banaka: Arrasate 15 Aretxabaleta 18 Paletan: Amurrio 27 Arrasate 35 Hurrengoak: Paletan: Arrasate - Altza. Larunbata. 11.30etan. Musakola. Eskuz Banaka: Arrasate - Mallabia. Larunbata. 11.30etan. Musakola.

Erdiko kale. 79 19 37

Ferrerías. 79 87 62

**Bidaiak**

Kontzeziño, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 14 06

*Epelde*

- Estudioa
- Ezkontzako erreportaiak
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24 Maixu Arano, 8  
Tfnoa: 79 19 71 Tfnoa: 79 26 23

# Alkoholarekiko baliokidetasunak


**Egunean** zehar 75 cc. edo gramotik gora alkohol kantitatea edan ezkeru gehiegi edatea da. Beheko taulan edariaren arabera ze kantidade den agertzen da.

EDARIA	GRADUAZIOA	KANTITATEA
Sagardoa	3	2 1/2 litro
Garagardoa	6	1 1/4 litro
Ardoa	12	3/4 litro
Kopak	40	0,175 litro

## ALKOHOLEMIA

Alkoholaren kontzentrazioa odolean adierazten du 0,8 gr./litrotik gora hasten dira kondukta aldaketak sortzen eta horregatik gidarientzat hor dago muga kokatua.

Alkoholaren intoxikazio dosisa, hau da, mozkorra igertzen denean 1,5gr. /litroko da gutxi gorabehera. Alkoholaren dosis hilgarria 5-8 gr. /litroko da.



EDARIA	KANTITATEA	ALKOHOLEMIA 0/0
Whisky	Kopa 1 = 30 Ml.	0,25 gr. / l.
Ardoa	" 120 Ml.	0,25 gr. / l.
Garagardoa	" 350 Ml.	0,25 gr. / l.

Odolean, ezer edan gabe, alkoholaren kontzentrazioa 0,15 batzbeste jaisten da ordubatean.

**EUGENIO ITURRIOTZ**  
(MEDIKUA)

## BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

### Mamografia

**Gune susmagarriak aurkitzea.**

**Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.**

**Bularreko ekografiak.**

**Bularreko tumoreen zitologia.**

**Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.**

# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



**DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.**

**Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18**

## Z E R N A H I A G O ?

**Edurne Balzategi****ALMENeko andereñoa**

- **Lehen muxua; non eta noiz?** Otamendi diskotekan BUP ikasten ari nintzela.
- **Zer abesten duzu dutxan?** Egia esan, ez daukat dutxan abesteko ohiturarik.
- **Zerk ematen dizu amorrua?** Pertonekin ezin elkar-ulertzeak.
- **Mutil-lagun asko izan duzu?** Beno, batzuk bai.
- **Jeloskorra zara?** Ez dut uste.
- **Hitzegin edo hitzegiten entzutea, zer nahiago?** Hitzegiten entzutea.
- **Askotan jazten duzu minigona?** Ez, lehen gehiagorik jazten nuen.
- **Triste zaudenean, noren sorbaldan egiten duzu negar?** Nire senarraren, amaren edo lagun-minen baten sorbaldan.
- **Bota dizuten lorarik lotsagarriena?** Uf! Ez dakit, aspaldian ez didatela lorarik botatzen!
- **Ligatzeko sekreturik?** Mutil batengana zuzenean joatea baino, zeharka jokatzeari.
- **Suspenso asko jartzen duzu?** Ez.
- **Azterketak zuzentzea, gaez ala egunez?** Egunez.
- **Ikasle pelotak ala bihurriak?** Bihurriak.
- **Medikuarengana joan zinen azken aldia, zein arrazoirengatik?** Semeak sukarra zuelako.
- **Ikasle batek egin dizun bihurrikeria handiena?** Gelako kristala apurtu.
- **Zein animalia ematen dizu beldurra?** Sugeak.
- **Telebistako zein iragarki duzu gustokoen?** "Golf" kotxeen iragarkiak.
- **Zein detergente erabiltzen duzu?** "Ariel" eta "Micolor".
- **Ikaslea zinenean, maixuak ala andereñoak zenituen gustokoen?** Maixuak.
- **Sekula maitemindu da zutaz ikasle bat?** Ez dut uste!
- **Ikasle bat txuleta harrapatzen baduzu...** Kendu egiten diot edo beste azterketa bat egiten diot.
- **Zuk egiten zenituen txuleta?** Gutxi batzuk egin nituen baina oso txarra nintzen.
- **Ikasleren bat galdera hauek irakurtzen egongo da; zer esango zenioke?** Erantzun guztiak ez sinisteko.



## JAIK

**Meatzerrekako jaiak asteburuan**

Bariku, zapatu eta domekan, Meatzerrekako auzokideek jaiak ospatuko dituzte eta jakina, gusto baduzu, zu ere gonbidatuta zaude.

Ostiralean arratsaldeko 8etan hasiko dira jaiak eta gaueko 9etan auzo-afaria eta herriko trikitilariekin erromeria izango dira. Larunbatean, berriz, ume eta gazteentzako jolasak eta herrikirolak izango dira arratsaldeko 4etatik aurrera. Ekintza hauei ohiko mus txapelketak hartuko dio txanda. Arratsaldeko 8etan emakumeentzako briska txapelketa jokatuko da eta gaueko 11etatik aurrera "Anaiak" taldearekin erromeria egongo da; goizaldean, txarri-harrapaketa egongo da eta berakatz-zopa banatuko da gaupase-roen artean.

Igandean bukatuko dira jaiak. Eguerdiko 12etan, San Valerio ermitan eta Goikobaluren partaidetzaz, meza izango da. Eguerdiko ordubietan, berriz, jaien amaiera moduan, buruhandiak irten-go dira auzoan zehar.



# LASAGABASTER


**ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.**

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

# “Mad Shadows”

## Ingelesez abesten duen talde mondrauetarra

“Iñakore” eta “Roni” hasi ziren taldearekin eta ondoren, “Piper” eta “Gordi” gehitu zitzaizkien. Lau gazte mondrauetar hauek duela urtebete sortu zen “Mad Shadows” taldeko partaideak dira. Ingelesez abesten dute eta maketa atera berri dute.



— “Mad Shadows” desgindako beste talde batzuetatik sortu da, ezta?

— **Roni:** Bai, duela urtebete hasi ginen Iñakore eta biok. Iñakore “Child Abuse” taldetik etorritakoa da eta gero, Gordi eta Piper batu zitzaizkigun. Gordi “More Beer” eta “Necrosis” taldeetan ibili izan da eta Piper “Iskanbila” taldean. Ni naiz beste talde batean ibili ez den bakarra.

— Zein musika mota egiten duzue? Defini daiteke?

— **Gordi:** Ez da erraza. “Hard-Core melodikoa” egiten dugula esango nuke nik, baina “pop” ikutuak ere baditu.

— Horrek zer esan nahi du: “Hard-Core” eta “pop” musika besterik ez duzuela entzuten?

— **G:** Ez, ezta gutxiago ere. Punk, Hard-Core eta beste musika mota asko entzuten dugu eta egia esan, talde askotako influentziak ditugula esan behar da, hori bai,

“grunge” musikarekin ez dugu ezer jakin nahi. Batzuri gustatzen zaigu baina ez diogu musika-hari horri jarraitu nahi: “Grunge” etiketa hori ez dago, Coca-Cola saltzeko besterik ez du balio!

— Zuen taldearen izena euskaratu ezker, “Itzal eroak” deitzen zarete: Zergatik?

— **R:** Beno, tontamentean jarritako izena da, inolako intentziorik gabe. Hasieran “Eztanda” deitzen ginen baina izen bereko beste talde bat zegoenez, “Izor adi” izenaz aldatu genuen. Azkenean, “Izurrai” izeneko talde bat ere bazegoenez eta nahasteko arriskua zegoela jakinik, “Piper”i, “Mad Shadows” izena bururatu zitzaion. Gainera, ingelesez abesten dugunez, primeran etorri zitzaiz-

gun izenburua.

— Arraroa da Arrasateko talde batek ingelesez abestea. Zergatik hori?

— **G:** Euskaraz abestutako kantaren bat ere badugu, baina gehienak, egia esan, ingelez abesten ditugu. Ez dakit, “puntazo” bat izan zen eta nire ustez, ingelesez abestuz, benetakoagoa ematen du taldeak. Kanten letrak “Piper”ek egiten ditu eta oso onak dira.

— Zeri abesten dio “Mad Shadows” taldeak?

— **R:** Gai guztiei abesten diegu baina, egia esan, letrak “Piper”ek egiten dituzte, bere gustoko gaiak aukeratzentzitu. Adibidez, Hegoameriketako kaleetan bizidiren umei buruzko kanta

bat dugu eta baita amodiozko beste batzuk ere.

— Maketa atera berri duzue. Zeintzu dira taldeak dituen asmoak?

— **R:** Gure asmoa ez da maketa taberna eta gaztetxetan salgai jartzea, hau da, gure maketa ez da salgai egongo. “Shot”en grabatu dugun maketa irratietara eta diska-etxetara bialdu eta taldea ezagutzera emateko da.

— **G:** Jendeak ez du maketarik erosten. Tabernetan maketa pila bat egoten dira eta talde ezezagunen maketak izaten direnez, inork ez ditu erosten. Lehenengo taldea ezagutzera eman behar da, beraz, Euskadi Irratira eta beste emisora batzuetara bialduko ditugu maketak.

— Nondik lortu duzue maketaren gastuak ordaintzeko dirua?

— **R:** Udalak gastu guttien erdia ordaindu digu eta gainontzekoa gure poltsikotik eta gurasoen poltsikotik jarri dugu. Gure gurasoak oso ondo portatu dira.

— Jendeak badaki maketa baten atzetik dagoen lana?

— **G:** Egia esanda, herrian inork ez gaitu apoiatzen. Roilo honetan sartuta dauden lagunak bakarrik laguntzen gaituzte, eta gure kasuan, Iskanbila taldekoek asko lagundu digutela esan behar dugu.

“Grunge” musikak Coca-Cola saltzeko besterik ez du balio”

IRAGARKIAK BANATZEKO  
EDO BUZONEORAKO  
PERTSONAK BEHAR DIRA.

Baldintzak:

18 urtetik gorakoak eta  
autoa izatea

Dei egin 77 13 97 tfnora  
astelehenetik ostiralera  
11etatik 12etara.

ARTE LENIZ

koadro eta  
moldurak

Leintzibar kalea, 4  
ARRASATE Tfnoa: 79 37 64

Monte  
taberna

Maalako arrabala, 11  
Tfnoa: 79 20 56

MARGOAK  
JUANMA

Margoak, paperak,  
gotelea e.a.

Agerre kalea, 5 3. ezk.  
Tfnoa: 79 69 17

ANTZERKIA

“Monstruo Sakratuak”

“Maskarada” antzerki talde bilbotarra antzezlan berriarekin datorkigu Arrasatera: Carlos Panerak zuzendutako “Monstruo Sakratuak” izeneko azken lanarekin. Taldea gure artean izango da ostiralean gaueko 10.30etan Amaia Antzokian.

Maskarada antzerki taldearen historia luzea da. 14 urte daramatza antzerkia egiten eta plazaratu dituzten lanak ez dira gure artean nolanihi igaro. Taldeko partaideek esaten dutenez, taldearen ezaugarriak azpimarratzekotan, bi: Humorea eta talde-sortze lana. Antzezlan berri hau egiteko, iturri ezberdinetatik edan dutela adierazten dute: Roland Dubillard, Groucho Marx eta Ionesco, besteak beste.

Euren lan berriari izenburua ematen dioten bi hitzok nondik datozen galdetuko dio askok bere buruari. Monstruo Sakratuak, Mendebaldeko Kulturaren izen handiak dira, eta eurei egindako milaka erreferentzien ondorioz dator titulua. Antzezlanean parte hartzen duten bi aktoreek, Patxi Telleriak eta Mikel Martinezek, ekarrizketa ero, solasaldi txoro, burutazio eta hitz-jokuetan garatzen dute testua. Maskarada taldeak, xinglekeriaren mozorropean, egungo gizarteari burla egiteko lizentzia hartu du “Monstruo Sakratuak” antzezlanarekin



Goiko kartela, aurtengo irabazlea da. Kartel txiki horietatik, goikoa, bigarrena, eta behekoa, gaztetxoek aurkeztutako onena izan da.



# Haratuzteetako kartelak badu irabazlerik

**Haratuzteak** ospatzeko hilabete pasatxo falta bada ere, kalean da aurtengo Arrasateko haratuzteak iragarriko dituen kartela. Udalak urtero antolatzen duen lehiaketan, iaz bezala, 9 lan aurkeztu dira aurten ere. Dena dela, Ion Garaik, kultura teknikariak adierazi duenez, aurtengo gazteen partaidetza iazkoa baino handiagoa izan da. Kartel irabazlea aukeratuta dagoen arren, haratuzteak baino astebete lehenago jarriko da kalean.

Joakin Rodriguez Fernandez arrasatearrak egin du aurtengo kartela eta 50.000 ptako diru-saria etxeratu du. Askori ezaguna egingo zaizue gazte hau, 1993ko San Juanetako kartelaren saria berari egokitu zitzaion eta. Joakinek 33 urte ditu eta Arrasateko Margolari Taldeko partaide da. Txikitatik margotzen duela dio eta kartel hau bi ordutan egin zuela aitortu digu. Erabili duen teknika errotuladorearekin nahastutako akrilikoa izan da.

Saririk jaso ez duen arren, bigarren postuan geratu den kartela, Estibaliz Ormaetxearena izan da. Estibaliz Ormaetxea ere, arrasatearra da eta 62 urte ditu. Emakume hau pintore bikaina eta ezaguna da. Gaztetxoek aurkeztutako kartelen artean, berriz, Amaia Obejero gaztearena izan da politena. Saririk ez du jaso baina lan polita egin du. Amaiak 13 urte ditu eta arrasatearra da. Horrela margotzen jarraitu ezker... nork daki!

**OPARITZEKO GAUZAK**

Mexiko, Guatemala, India eta Txinatik ekarriak



Ferrerias, 28-A. Tfnoa: 79 02 79 ARRASATE

**ELEKTRONIKA  
ARTIKULUEN  
SALMENTA**



J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE



Gerra aurtxoan, Abadetxe ikastolan.

turtea zen. PNVk, elizak eta ELAk sortu zuten ikastola hark gela ezberdinak zituen: batzuk Abadtxean, bi gela, eta Gurea zinemako lokaletan beste batzuk, mutikorik gatzetxoentzat. Mutilentzat bakarrik zela, zer esanik ez. Edade desberdinetakoak, denak batera egoten ziren gela berean.

Maisuak bi gogoratzen dituzte orduko ikasleek: Patxi Mendizabal, argazki honetan ageri dena, eta Juanito Etxeberria. Horiek ez zeudenean ordezkatza egitera etortzen zirenak Ezkurra eta Zaitegi izaten ei ziren. Gero Kristau Ikasbidea ematen berriz, On Leonardo Guridi eta On Jose Markiegi ibiltzen ziren, eta azken horrekin antzerkiak eta

abar ere egiten zituzten euskaraz.

Txikienek dena euskaraz egiten zuten, eta gero erdia euskaraz eta erdia erderaz. Euskaraz izan arren, Gramatika espainola asko ematen ei zieten. Euskara, berriz, Sabinoren ereduakoa, izparringia (egunkaria), suburdia (trena), akeita (kafea), lutelestia (geografia) eta berezibila (autoa) bezalako berbekin.


Goiko eskolakoek, Abadtxean zeudenek, asteko berriak idazten zituzten eta gero ondoen idatzitakoa apartatu eta Euzkadi egunkarira bidaltzen zuten.

1936ko uztailaren 18rako, gerrak irten zuen egun bererako, eskurtsioa zuten antolatuta ikastolatik: Gernikara

eta Sukarrietara joatekoak ziren, Arbola eta Sabino Arana Goiriren hilobia bisitatzerara. Bidaia hura bertan behera geratu zen, gaur arte.

Argazkia zutik ezkerretik hasita, **Alfonso Gorroñoitia**, ezezaguna, **Miguel Unamuno**, **Lorenzo Narbaiza**, **Antonio Bereziabar**, **Frantzisko Mendizabal** maisua, **Manolo Uriarte**, **Pedro Barrutiabengoa**, **Victor Usobiaga**, **Jose Murguzur** eta **Jose Markaide**.

Makurtuta, ezkerretik hasita **Jose Ramon San Miguel**, **Jose Bereziabar**, **Miguel Vazquez**, **Imanol Urkiola**, **Jesus Unamuno**, **Jon Arregi**, **Jose Arregi** eta **Luis Usobiaga**.



**erra** aurtxoko erretratu honetan Arrasateko lehen ikastolako ikasle talde bat dugu. 1934-35 edo 1935-36 ikas-

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa

**M**  
**ARENAZA**

Bizkai, 1 ARETXABALETA  
Tfnoa: 79 08 07

**ARGI PLASTIC**

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atekak, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua  
konpromezu barik**



Tallerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30

**beatriz**

oinetakoak eta  
poltsak

Erdiko kale, 11  
Tfnoa: 79 14 33  
ARRASATE

# AMAIA ANTZOKIAREN ZURE ONDOAN

## 95eko 1engo hiruhilabetea ANTZERKI PROGRAMAZIOA

URTARRILAK 27, OSTIRALA (10.30etan)

### MASKARADA Monstruo sakratuak



OTSAILAK 17, OSTIRALA (10.30etan)

### BEDEREN 1 Errenta



MARTXOAK 3, OSTIRALA (10.30etan)

### TANTAKA Todas culpables



MARTXOAK 24 eta 25, (10.30etan)

### ARTESZENA Mephisto



SARRERA: 700 pta  
Guzte txartelarekin 500 pta




GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA

• AIPUA •

*Emakumearen izpiritua umearenaren antzekoa da; gauzek barruan zer duten ikustea gustatzen zaio.*

V. GARCIA MARTI

• JEROGLIFIKOA •



Lapurdiko herri bat

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8						9
10						11
12			13		14	
		15				
16	17					
18				19		

J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. Txaro, ALMENEko zuzendaria. 8. Marraztuz egindako irudia. 10. Zerbañt toki batean jarri. 11. Latinezko esaldietan erabiltzen da. 12. Alfabetoko 21. letraren izena. 13. Elizkizunetarako egindako eraikina. 15. (Ald.) Palanka. 16. Prestatu. 18. Oinarritzko edaria. 19. Gizon izena.

**Bertikalak** 1. Norbaiten itxurak egin. 2. Sudurretik hartzen den tabakoa. 3. Ihardun. 4. Haserre bizia. 5. Harribitxiak landu. 6. Lehena eta azkena. 7. Bidaiari. 9. (Ald.) Pluralean barazki arrunta. 14. Hitzarmen. 15. Gipuzkoako udalerria. 17. Sexu maskulinoa duen animalia.

• HOROSKOPOA •

**Aries** Zer gertatzen ari da zure inguruan? Tutik ere ez duzu ulertzen, ezta?

**Taurus** Zurrumurruek diotenez, aberastu egin zara. Egia da?

**Gemini** Oso gutxi hitzegiten duzunez, txunditurik uzten duzu jendea.

**Cancer** Laster oheratzen hasten bazara, hurrengo egunean igarriko diozu.

**Leo** Apropos egiten duzu negar edo benetan horrelakoa zara?

**Virgo** Aste honetan, hainbeste ez jatea gomendatuko nizuke.

**Libra** Urduri zabiltz. Ez zaizu erantzukizunik hartzea komeni.

**Scorpio** Zer sentitzen duzu bihotzean? Hutsunea? Tristura? Atseka-bea?

**Sagitaris** Igarle bikaina zara baina kiniela ez duzu sekula asmatuko.

**Capricorn** Zein ezkorra zaren! Aizu, mundua ez da larrosa kolorekoa.

**Aquarius** Azkenputz ibiltzen zara eta horregatik autobusak ihes egiten dizu.

**Piscis** Arreta handiz ibili, baten bat azpilanean dabil eta.

# LORAMENDI BIROLAK

Beherapenak



## • TELEBISTAREN TXOKOA •

## Lehiaketa: Gidan begiratu... eta zorte on!



**A**di! Arrasate Telebistan lehiaketa berria jarri dugu abian! Astero-astero, "Gida 95"ari buruzko galdera bat egingo dizugu telebistan eta zuk, erantzuna aurkitu behar-ko duzu gidan agertzen diren iragarkien artean. Gainera, lasai egon zaitetzke: galderak errazak izango dira eta bide batez, sari bikainak irabazi ahal izango dituzu. Sariak desberdinak izango dira astero: galdetzen zaitzun iragarkiaren arabera, kirol-materiala, elektragailuak edo bestelako sariengatik trukatzeko erosketa-bono bat etxeratu ahal izango duzu. Datorren astetik aurrera, ez ezazu Arrasate Telebistatik begirik kendu!

## • KOMIKIA •



Segu-zahar

ETXEPARE - BILINTX  
LIBURUDENDA

## Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA  
Tfnoa: 76 40 50

## • PROGRAMAZIOA •

**29 Igandea**

21.30etan  
**Mondragol. Itxaró Zubillagak** aurkeztua.

**30 Astelehena**

20.00, 20.30 eta 21.00etan  
**Berriak**  
21.30etan  
**Mondrasport**

**31 Asteartea**

13.30etan  
**Mondrasport** (errep.)  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
**Berriak**  
21.30etan  
**ATBketan**

**1 Astezkena**

13.30etan  
**ATBketan** (errep.)  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
**Berriak**  
21.30etan

**Pareak Jokuan.** Bizi dugun lan-krisiaren aurrean sindikatuek daukaten papera aztertuko du **Ion Sarasuak**. Programara hainbat sindikatutako partaideak etorriko dira.

**2 Osteguna**

13.30etan  
**Pareak Jokuan** (errep.)  
20.30etan  
**Berriak**  
21.30etan  
**Ibilixan Dabilena**

**Gonbidatua: Ion Arretxe.** Abenturazale honek sekulako bidaiek egin ditu BTTan. **Eneko Aranguren**ekin batera Afrika eta Txinatik egingakoen gainean mintzatuko zaigu. Erreportaia: Puentinga Araotzen.

**3 Ostirala**

13.30etan  
**Ibilixan Dabilena** (errep.)  
19.15etan  
**Marrakzi Bizidunak**  
19.50etan  
**Kukaratxa Motel**  
20.30 eta 21.00etan  
**Berriak**  
21.30etan  
**Astebete**  
22.00etan  
**Marrakzi Bizidunak**

## • SOLUZIOAK •

Angelu.  
**Jeroglifikoak:**  
17. Ar.  
Bidezti. 9. Azak. 14. Iun. 15. Ala.  
Art. 4. Emegu. 5. Tailatu. 6. AZ. 7.  
**Bertikalak:** 1. Imitariu. 2. Rape. 3.  
19. Unai  
za. 15. Zataga. 16. Tailatu. 18. Ura.  
ki. 10. Ipini. 11. Ad. 12. Te. 13. Eji.  
**Horizontalak:** 1. Iracta. 8. Marraz-

**Etxebizitzak**

- **Apartamendua salgai Erguinen.** Dei egin 79 22 12 tfnora astegunetan gauetan.
  - **Nesken etxe batean logela** alokatzen da, oso merke. Tfnoa: 77 06 25. Ainhua.
  - **Etxebizitza behar dut alokatzeko Arrasaten.** Tfnoa: 79 73 05.
  - **Pertsona euskalduna behar dugu etxebizitza osatzeko.** Tfnoa: 65 52 98.
  - **Bi oheko gela alokatzen da.** Tfnoa: 79 07 73.
  - **Donostian pisu baten bila nabil.** Zure etxean toki bat badaukazu, deitu 79 77 02 tfnora. Harremanetarako, Santirekin.
  - **Etxebizitza salgai Errebueita kalea, 8** 6-Behea. Tfnoa: 79 41 68.
  - **Etxebizitza bat alokatzen dugu Biteri etorbidean.** Tfnoa: 77 00 80.
  - **Etxebizitza erosi nahi nuke** 7 eta 9 miloi pta bitartean. Harremanetarako dei egin 79 37 68 tfnora.
- Etxebizitza alokatzen da.** Maixu Guridi, 8 behea. San Andres. Interesatuok dei egin 71 48 27 tfnora.(gaueko 8etatik aurrera).

- **Emakumea prest jabetxeak garbitzeko edo umeak zaintzeko.** Tfnoa: 79 63 27. Nati.
- **Andra euskalduna etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko gertu.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Andra erizain ausiliarra eta esperientziadun gerokultora** pertsona nasgusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 34 53. Arrasate.
- **Taberna alokagai** atenditu ezin dugulako. Interesatuok dei egin 79 23 81 tfnora, arratsaldez.
- **Esperientziadun neska arduratsua eskaintzen da** edozein motatako dendatan saltzaile lan egiteko. Umeak zaindu eta etxeko lanak egin ere egingo luke. Tfnoa: 79 73 06.
- **Esperientziadun neska eskaintzen da** umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 96 10.
- **Neska laguntzaile bezala egingo luke lan etxebizitzetan, tabernetan, atarietan, kontsultategietan,...** Tfnoa: 79 96 10.
- **Neska umeak zaindu, etxeko lanak egin edo lokalen garbitasun lanak egiteko prest.** Tfnoa: 79 37 68.
- **Klase partikularrak ematen dira, UBI eta asig-natura batzuk (Matematika, fisika, kimika, informatika,...) euskaraz eta erderaz. Talde txikiak.** Tfnoa: 79 56 82 eta 79 71 89.

300m<sup>2</sup>koa eta erdikaldean. Tfnoa: 79 07 84. 4etatik 8etara.

- **100 litroko FAGOR termoa** saltzen dut prezio onean. Tfnoa: 79 07 73.
- **Garaje itxia alokagai Roneon.** Tfnoa: 79 19 64.
- **Bigarren eskuko hozkailu bat behar dut.** Tfnoak: (94) 41 11 666 edozein ordutan edo 79 90 36 astelehenetik ostiralera, 3.30etatik 7.30etara.
- **SUZUKI LIDO motorra salgai, 75 zm<sup>3</sup>koa.** Matrikula: VI-3154-M.3 urte ditu. Maletero eta parabrisasarekin. Tfnoa: 79 12 01. Joseba.
- **FORD ESCORT XB3i-a salgai.** (SS-AC). Tfnoa: 71 43 31.
- **Garaje itxia alokatzen da, Larrea aldean.** Tfnoa: 79 69 41. Julia.
- **10 litroko FAGOR kalentadorea salgai, ia berria.** 13.000 pta. **Berogailu japoniarra,** handia eta berria, 35.000 pta. Tfnoa: 77 01 64.
- **FORD FIESTA 1.100 Trip salgai.** SS-AB. Ondo zaindua eta prezio onean. Tfnoa: 76 46 80. Gaez deitu. Anabel.
- **Roneoko etxeetan garajea alokagai.** Tfnoa: 79 36 39.

**Lana**

- **Esperientziadun neska arduratsua** eskaintzen da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko, edota pertsona nagusiak zaintzeko, tabernak edo bulegoak garbitzeko... Tfnoa: 79 72 19. Txus.
- **Ingeleseko klaseak emango nituzke.** Tfnoa: 79 21 56
- **OHOko klase partikularrak emango nituzke.** Tfnoa: 79 69 41. Arantxa.

**Salerosketak**

- **Jangela edo sukalde baterako alazena bat saltzen dut.** Gaztainondoko egurrez eginda dago eta berri berria dago. Tfnoa: 79 22 85.
- **Honako gauzak saltzen ditut:** 1,35eko sofa cama; sukalderako mahai borobila eta zuria, bere aulki eta banketekin; egurrezko kutxa; zumitzezko mahai borobila. Tfnoak: 76 62 85 (Angel, goizeko 9,30etatik 11etara) eta 79 82 18 (Mari Jose, gaez).
- **Lokal komertzial baten bila gailtza, 200-**

**Denetarik**

- **Zapatu goizean betaurrekoak galdu zitzaizkidan.** Montura metalikodunak. Arbolapetatik Olarte kantoira bitarteko bidean. Tfnoa: 79 17 81.
- **Urrezko pultsera galdu zitzaidan urtarrilaren 21ean** Villa Amparo garajeetatik Aldairainoko bidean. Tfnoak: etxekoa: 79 00 16. lanekoa: 79 05 35. Gurutze.
- **Erlojua galdu zait.** Aurkitzen baduzu, deitu 79 51 21 tfnora. Eluskagatik galdetu.

**Aste Gazte**

**Bekak**

• "Unesco" bekak 95-96 ikasturterako. Edozein arlotan. Lizenziatuei zuzenduak. Alemana menperatzea ezinbestekoa da. Epea: otsailak 15.

• 95-96 ikasturtea Liejako (Belgika) unibertsitatean ikasketak zabaltzeko zein ikerketak egiteko beken deialdia. Lizenziatuei nahiz karrerako azken urtean dabilzanezi zuzenduak. Epea: martxoak 24.

**Lana**

• Bermeoko Udalak lanpostu hauen deia egin du. a)

Administrari bat. b) gizarte laguntzaile bat. Epea: Otsailak 2

• Tolosako Udalak, heziketa fisikako teknikari lanpostua eta zuzenbidean lizenziatu baten lanpostua kaleratu ditu. Epea: otsailak 5.

• Nafarroan, Barañain herrian kultur dinamizatzaile bat behar dute. Epea: otsailak 10.

**Ikastaroak**

• Durangoko enplegu eta prestakuntzako "Sartu" zentruak, "Altzarien berriztapena" ikastaroa antolatuta du langabezia dauden pertsona interesatuei

zuzendua. Epea: otsailak 24.

• Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak "Mendi eski ikastaroa" antolatuta du, otsailak 11/12 eta 18/19 asteburuetarako.

**Eski kanpaina (Diputazioa)**

• Eski Alpinoa, 15-29 urte bitartekoei zuzendua. Iharduera, eskialeku eta prezio desberdinak. Erreserbak, Gazte Bulegoan.

**Lehiaketak**

• "Antonio Machado" narrazio laburren XIX. saria. Nahi duten idazle guztiek parte har dezakete eta lan bat baino gehiago aurkeztu. Epea: otsailak 17.

**"Eta...gosearen ondoren asetzen bagara, gaztaroaren ondoren zahartzarora zain badugu eta poztasunaren ondoren tristura badago, zein balio dauka bada gaixotasunak?"**

**"RHADOPSIS" NAGUIB MAHFUZ**



**Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65**



San Frantzisko Xabier  
**IKASTOLA**



**GURASO ETA  
IRAKASLEON ARTEKO  
KOMUNIKAZIOA,  
GEROA  
ERAKITZEKO BIDEA.**



**BADAKIZUE,  
HEMEN GAITUZUE.**

# IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

## ZURE AMETSA NATURAREN FRUITU DENEAN...



BAINU ERAKUSKETA

SUKALDE ERAKUSKETA

**FAGOR**



Zarugalde kalea, 52

**ARRASATE**

Tfnoa: 79 99 42

Udala Enparantza, z/g

**ARRASATE**

Tfnoa: 79 00 43